# landeia

ALDIZKARI SINDIKALA - REVISTA SINDICAL
URTARRILA-OTSAILA / ENERO-FEBRERO **2018** Nº **226** ZENB.

# Emakumeok sistemari planto!

*Si paramos todas, paramos todo*





## Martxoak 8 Greba feminista

**3**
**EDITORIALA**
EDITORIAL
Garai latzenetan ere, ELAren eredua aurrera

**5**
**IRITZIA**
OPINIÓN
Mikel Noval: El descontrol de Kutxabank

**13**
**BERTATIK**
PULSO SINDICAL
La plantilla de la Clínica La Asunción, de Tolosa, intensifica las movilizaciones en febrero

**15**
**EKOLOGIA**
MEDIO AMBIENTE
2018an ere erraustegirik ez!

**18**
**LEGEAREN BUELTAK**
PÁGINAS JURÍDICAS
Calendario, pensiones mínimas, cotizaciones, retenciones, SMI... 2018

**25**
**CON PERSPECTIVA**
HARIRA
Entrevista con Peio Igeregi, responsable de negociación colectiva. "Ahora, a recuperar lo nuestro"













# ELA non

## Konfederazioa

Barrainkua 13
48009 Bilbo
Tel: 94 403 77 00
Fax :94 403 77 11

## Eskualdeak

**01005 GASTEIZ**
Manuel Iradier 25
Tel: 945 15 80 76
Fax: 945 14 10 74

**1200 AGURAIN**
Calle Fueros, 27.
Tel: 945 31 20 26
Fax: 945 30 18 75

**01320 OION**
Nafarroa Etorbidea 31 behea
Tel. 945 62 24 40
Fax.945 62 24 43

**48009 BILBO**
Barrainkua 13
Tel: 94 403 77 00
Fax: 94 403 77 11

### IBAIZABAL-NERBIOI

**01400 LAUDIO**
Herriko Plaza 4, 1º C
Tel: 94 403 65 45
Fax: 94 403 65 46

**48970 BASAURI**
Antonio Fernández s/n
Tel: 94 405 58 88
Fax: 94 405 58 68

**48960 GALDAKAO**
Muguru 8 entrepl.
Tel: 94 400 57 57
Fax: 94 400 57 58

**48140 IGORRE**
Sabino Arana 22, lonja
Tel: 94 631 54 58

### EZKERRALDEA-KADAGUA

**48902 BARAKALDO**
Gernikako Arbola 35-38
Tel: 94 418 02 96
Fax: 94 418 93 17

**48980 SANTURTZI**
Maestro Calle 1, bajo
Tel: 94 493 56 59
Fax: 94 493 62 96

**48860 ZALLA**
Plz Carolina Renovales 7
Tel: 94 667 02 88

### ESKUMALDEA

**48930 AREETA**
Areetako etorbidea 2
Tel: 94 602 04 50
Fax: 94 602 04 20

**48160 DERIO**
Txorierriko Etorbidea 9
Tel: 94 404 31 13

**48100 MUNGIA**
Herri Bide 8, entrepl.
Tel: 94 674 00 16

### GERNIKA-DURANGO

**48200 DURANGO**
Askatasun Etorbidea 5.
Apdo.183
Tel: 94 621 76 80
Fax: 94 621 76 81

**48300 GERNIKA**
Urkieta 9, 1º izda.
Tel: 94 627 00 53
Fax: 94 625 60 09

**48700 ONDARROA**
Artabide 12-1C
Tel: 94 683 25 15
Fax: 94 613 41 27

**48260 ERMUA**
Goenkale, 9
Tel: 943 17 60 15
Fax.: 943 53 16 65

**20014 DONOSTIA**
Consulado 8, behea
Apdo. 971
Tel: 943 00 50 00
Fax: 943 00 50 01

### UROLA-KOSTA

**20730 AZPEITIA**
Apdo. 97
Arana Goikoa 1-2-3, bajo
Tel: 943 81 34 46
Fax: 943 15 09 57

**20800 ZARAUTZ**
Apdo. 282
Bizkaia kalea 8
Tel: 943 00 05 28
Fax: 943 00 05 29

### DEBA

**20500 ARRASATE**
Otalora Lizentziatua, 22
Tel: 943 79 45 09
Fax: 943 79 68 01

**20570 BERGARA**
Ibargarai 26-30 behea
Tel: 943 76 43 01
Fax: 943 76 13 39

**20600 EIBAR**
Bidebarrieta 30, bajo, 1º
Tel: 943 82 04 42
Fax: 943 82 06 12

**20560 OÑATI**
Euskadi Etorbidea, bajo, 3-4
Tel: 943 08 25 00
Fax: 943 08 25 01

### ORIA GOIERRI

**20200 BEASAIN**
Juan Iturralde 9, 1º
Tel: 943 08 61 40
Fax: 943 08 61 4

**20120 HERNANI**
Argarain 3, behea, Antziola Auzoa
Tel: 943 33 64 64
Fax: 943 33 64 68

**20160 LASARTE**
Zumaburu 5, trasera
Tel: 943 57 16 44
Fax: 943 57 12 61

**20230 LEGAZPI**
Aizkorri Kalea 1, 1ºA
Tel: 943 73 18 18
Fax: 943 73 19 54

**20400 TOLOSA**
San Francisco Ib. 13
Tel: 943 69 83 14
Fax: 943 69 82 41

**20700 URRETXU**
Labeaga 33, behea
Tel: 943 03 63 91
Fax: 943 03 67 65

### OARSO-BIDASOA

**20100 ERRENTERIA**
Pza. Koldo Mitxelena 2, bajo
Tel: 943 00 01 13
Fax: 943 00 01 14

**20302 IRUN**
Paseo Colón 27, 1º
Tel: 943 63 84 70
Fax: 943 63 84 71

**31780 BERA**
San Esteban 13, bajo
Tel/Fax: 948 63 07 92

**31004 IRUÑEA-PAMPLONA**
Iturralde y Suit, s/n
Tel: 948 00 79 30
Fax: 948 00 79 59

**31800 ALTSASU**
La Paz 3, Entr.
Tel: 948 46 73 38
Fax: 948 56 73 07

**31200 LIZARRA-ESTELLA**
C/ Fray Diego 13, bajo
Tel: 948 54 67 70
Fax: 948 55 58 87

**31350 PERALTA-AZKOIEN**
Avda. La Paz 9-1º Izda.
Tel: 948 75 10 17
Fax: 948 75 17 11

**31570 SAN ADRIAN**
Ctra. de Estella 32, bajo
Tel/Fax: 948 69 61 59

**31400 SANGÜESA**
Calle Mayor, nº 9
Tel: 948 43 01 08

**31300 TAFALLA**
Plaza Cortés 3, bajo
Tel/Fax: 948 70 16 60

**31500 TUDELA**
Fernando Remacha 4, 1º
Tel: 948 02 62 02
Fax: 948 02 62 03

**31580 LODOSA**
Paseo Central s/n
Tely fax: 948 69 42 12

**31780 BERA**
San Esteban 13, bajo
Tel/Fax: 948 63 07 92

**landeia**

Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

**ERREDAKZIO TALDEA EQUIPO DE REDACCIÓN**

**Zuzendaria - Director:** Iván Giménez.
**Koordinatzailea - Coordinadora:** Nerea Ispizua.
**Idazlariak - Redactores:** Gorka Quevedo, Juan Antonio Korta, Nagore Uriarte, Haimar Kortabarria, Iñaki Zabaleta, Ainhara Plazaola eta Xabier Harluxet.
**Itzulpen lanak:** Bixen Fernández Amezaga.
**Argitarazle - Edita:** ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. Tfno: 944037700.
**www.ela.eus**
**Email:** prentsa@ela.eus

# 1 › IRITZIA OPINIÓN

## 01

EDITORIALA EDITORIAL

# GARAILATZENETANERE, ELARENEREDUAAURRERA

Gobernu eta komunikabide ia guztiek azken 10 urtetako krisialdi ekonomikoa gainditutzat ematen badute ere –errealitatearekin zerikusirik ez duten analisiak egiten–, ELAn nahiko ongi dakigu gezurra dela: fikziozko kontakizuna eratzen ari dira langileen desmobilizazioa helburu. “Ekonomia gora doanez, zertarako mugitu? Etekinak %200a handitu direnez (Intermonen azken txostenen arabera), azpian daudenoi zer edi zer eroriko zaigu”. Ba ez, soldatek izoztuta jarraitzen dutela, eta ezberdintasun ekonomiko eta sozialak gero eta handiagoak direla: krisialdiaren aurretik ongi zegoena, orain hobeto dago; eta 2007an gaizki zegoena, gero eta okerrago dago orain.

ELAn ez dugu kanpoko txostenik behar, gureak ditugulako eta gure afiliatuek pairatzen duten errealitatea arras ongi ezagutzen dugulako. Hain justu, krisialdi honetan afiliatuen aldeko apustua inoiz baino zuzenagoa dela frogatu egin da. 2008an, kaleratzeak, soldaten murrizketak eta lan zentruen itxierak ugaritzen hasi ziren; egoera larritzen joan zen hurrengo urteetan, baina ELAk eutsi egin zion bere jarduerari, langileen benetako erreferentziarik nagusiena izaten jarraitzen.

Une zailenetan, langileei geratzen zaien ia gauza bakarra zer da? Sindikatua.

**Durante esta década larga de crisis, hemos pasado momentos muy difíciles.**
**El crecimiento de afiliación que estamos experimentando nos demuestra que el camino elegido era el correcto**

Eta une larrienetan, sindikatuari zer geratzen zaio? Afiliatuak, militanteak... Besterik ez. Gure autonomia politiko eta ekonomikoa afiliatuen esku dago, haiek (zuek) dira ELAren babes ia bakarra. Une kezkagarriak bizi izan ditugu, baina iaz eta aurtengo lehen hilabetean, afiliatuen kopurua berriro gora joan dela ikusita, ondorio garrantzitsu batera heldu gara: ELAren eredu sindikala eramangarri eta gauzagarria da, baita krisialdi latzenetan ere. Beste hitzetan: gure apustua zuzena zela frogatu egin dugu.

Eta ataka horretatik indarberriturik ateratzen ari gara: autonomia ekonomikoak erresistentzia-kutxaren erabilera ahalbidetzen du, lan gatazka asko irabazteko tresna bihurtuz. Gure autonomia politikoei esker, gure ahotsa ozen entzunarazten dugu, garai nahasi hauetan. Eta abenduko hiru federazioetako kongresuetan frogatu genuen bezala (Gizalan, Zerbitzuak eta Industria eta Eraikuntzaren zuzendaritza berriek %89 eta %95 arteko babesa jaso zuten), ELA gero eta kohesionatuago dago, aurrean dauzkagun erronkei aurre egiteko prest.

Geurea berreskuratzeko garaia iritsi da!

### ALDAtuta itzuliko gara!

Esku artean daukazun **Landeia** ale historikoa da, formato honetan egin dugun azkena izan delako.

Datorren hilabetetik aurrera, ELAren paperezko argitalpenak erabat berrituta jasoko duzu: Berrituriko **Landeia**z gain, mundua **ALDA**tzeko tresna sendo eta erakargarria plazaratuko dugu. Adi egon!

El **Landeia** que vas a leer es histórico, porque ha sido el último editado en este formato.

A partir del mes que viene, las publicaciones de ELA tendrán otra cara y otro contenido:

Además del renovado **Landeia**, preparamos una publicación que nos ayude a cambiar el mundo.

[ 02 ]

**HITZA HITZ** CON NOMBRE PROPIO



**Mirari Irure,**
Zerbitzuak federazioko arduraduna

# ZEROZABORNEGOZIAZIOKOLEKTIBOAN

Murriztu, berrerabili, birziklatu eta berreskuratu: ingurumenarekiko begirunea duen zabor kudeaketaren gakoak. Gipuzkoako komunikabideetan sarri jorratzen da zabor kudeaketaren gaia, gehienetan, gainera, polemika dosi kutsakorrarekin datorkigu. 2017 urtearen azken egunetan, ostera, zaborren beste alderdi bat zuen hizpide prentsak, kale garbiketaren eta zabor bilketaren lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren negoziazioa, alegia.

Gaur jakin badakigu negoziazio hori amaiera zoriontsudua izan duen istorio izatera pasa dela. Hori gutxi balitz, beren aldarrikapenak lortzeko, kale garbitzaileek azkenean ez zuten greba egunik egin behar izan. Zorionez, beti ez da beharrezkoa izaten Bizkaiko erresidentzietako emakumeek erakutsi ziguten 300 egunetik gorako borroka heroikoa. Edonola ere, kale-garbitzaileen lorpena ez zen ezerezetik sortu. Garaipenaren nondik norakoak ulertzeko, egin dezagun historia apur bat.

2016an hasi ginen negoziatzen hitzarmena; azken negoziazioaren ajeak bizirik zirauen artean. Aurreko hitzarmena abagune zailean negoziatzea egokitu zitzaigun, krisialdiak, lan-erreformek eta udalen murrizketek eragindako testuinguruan, hain zuzen ere. Ondorioz, egoerak baldintzatutako %0,7ko eros-ahalmena utzi genuen bidean. Hortaz, negoziazio berriarekin bagenuen egitekoa.

**Negoziazio prozesuak luze jo zuen.** Hilabeteak joan hilabeteak etorri, muinari heldu orduko urtea joana zitzaigun (pentsa, 5 urteko ultraaktibitatearen ordez urtebeteko ultraaktibitate legala bagenu, hitzarmenik gabe geundeke orduko). Urtea pasata, diru-kontuez hasi ginen, eta orduan hasi ziren komeriak. Patronalak, FCC buru zuela, eskala bikoitza proposatu zigun: prezioaren berrikuspena zuten kontratetarako igoera bat eta gainontzekoentzat beste bat, baxuagoa, noski. Proposamenak sindikatu guztion ezezko borobila jaso zuenez, bigarren erasoa etorri zen: hitzarmen probintzialetik kanpo uztea Donostiako kontrata. Gipuzkoako kale garbikuntzan 1.200 langilek badihardute, Donostian 250 langile dira, beraz, esparrua ez zen nola-nahikoa. Langile guztien %20ari Rajoyren erreformak ahalbidetu zituen enpresa-hitzarmen eskas horietako bat aplikatu nahi zieten. Orduan ere erantzuna tinkoa izan zen, eta alde sindikalak ez zuen xantaia onartu. Baina patronalaren erasoak ez ziren hor bukatu, eta gainontzeko kontratetan negoziazio mahaiak ireki zituzten.

## Las/os trabajadores de la limpieza y recogida de basuras de Gipuzkoa han conseguido un gran acuerdo. ¿Las claves? ELA –63% de representatividad–, organización y caja de resistencia




Negoziazio horietan, probintzialean ordura arte eskainitakoak baino soldata-igoera hobeak eskaini zituzten, langileak zatitzeko helburuarekin. Mugimendu horren aurrean Gipuzkoa osoan zehar langileen asanbladak egin genituen, eta, beste behin ere, erasoari eutsi genion. Langileak ez ziren zatiketara makurtuko eta ez zuten hiltzen utziko hitzarmen probintziala. Inondik inora. Gauzak horrela, gatazka antolatzea beste aukerarik ez zigun uzten patronalak. Greba mugagabea deitu genuen Santo Tomas egunerako.

Ordura arte mantendutako batasun sindikala greba eguna hurbildu ahala hasi zen puskatzen. Patronalak gogor jokatu zuen, eta soldata ez beste bi aldarrikapenak eman zizkigun: ultraaktibitate mugagabea eta asteburuetako langileen prekarietateari aurre egiteko sistema. Grebaren bezperatan, CCOO eta UGTrentzat galdutako eros-ahalmena berreskuratzea ez zen jada ezinbestekoa, eta greba deialditik irten ziren. Egoera zaila zen oso.

**Eusteak merezi izan zuen, eta greba egunaren bezperan itxi genuen akordioa.** Patronalak ondo zekien grebari eusteko beharrezkoak diren antolakuntza eta tresnak bagenituela. Horregatik eman zuen amore. Gaur eskerrak ematea dagokit. Batetik, ELAri. Sindikatu independente, ekonomikoki autonomo eta erasokorra izateko tresna sortzeagatik. Gora erresistentzia kutxa! Bestetik, %63ko ordezkaritza ematen diguten ordezkari guztiei, beraiei esker, negoziazioak eskatzen duen batbatekotasunarekin barreiatu ahal izan genuen informazioa Gipuzkoa osoan zehar. Aupa, ekipo! Azkenik, gure afiliatu eta jarraitzaileei, jasan genituen xantaia guztiei muzin egiteagatik eta sindikatuan azken unera arte erakutsi duzuen konfiantzagatik. Bihotzez, Zorionak! Harrotasunez esan dezakegu Gipuzkoako kale-garbiketaren negoziazioan *zero zabor* daukagula.

**Murriztu:** asteburuetako langileen prekarietatea murriztu dugu, beren lanaldiak handitzeko sistema arautuz.

**Berrerabili:** gure argudioak behin eta berriro erabili ditugu, nondik gatozen jakitea garrantzitsua baita nora goazen erabakitzeko.

**Birziklatu:** sindikalgintza birziklatze prozesu etengabea da, eta negoziazio hau ere hala izan da. Behar indibidualetatik interes kolektiboak eraiki ditugu, langile zapalduetatik militanteak egin ditugu eta haserrealditik aldarrikapen-gatazka antolatu dugu.

**Berreskuratu:** ultraaktibitate mugagabea eta eros-ahalmena berreskuratu ditugu. Baina ez hori bakarrik, duintasuna eta errespetua ere bai. Finean, gurea dena berreskuratu dugu.

03

HITZA HITZ CON NOMBRE PROPIO



**Mikel Noval**
Responsable de Política Social

# EL DESCONTROL DE KUTXABANK

Kutxabank es un banco. Es una obviedad. No debería serlo. La fusión de las Cajas de Ahorros Vital, Kutxa y BBK fue aprovechada para, de rondón, cambiar la naturaleza de la entidad, convirtiendo lo que eran Cajas en un banco. Kutxabank quería jugar en la Liga BBVA, en la de los grandes bancos. Se ve que a sus directivos Euskal Herria se les había quedado pequeña (que les gustaba más España estaba claro con su opción por aplicar un convenio de ámbito estatal al conjunto de la plantilla, obviando la voluntad de la mayoría de sus trabajadoras y trabajadores).

La bancarización de Kutxabank supuso también un cambio radical en la naturaleza de su control. Las Cajas de Ahorros tenían que dar respuesta a unas Asambleas en las que las instituciones y distintos representantes sociales tenían capacidad de decisión. Ahora ya no. Existen unas Fundaciones (llamadas igual que las anteriores Cajas de Ahorros, no vaya a ser que la gente se dé cuenta de que la están engañando), dirigidas por un Patronato, en los que se llega a nombrar directamente a sus sucesores. Ni la monarquía.

**Ez da berdina erakundeek Kutxabank bezalako finantza-entitate bat denon zerbitzura izatea edo ez izatea. Eta gainera, bankarizazioa txalotu dute, eta alternatiba baten alde agertu garenok kritikatu**




**Irresponsabilidad institucional.** A ELA siempre le ha parecido una irresponsabilidad que desde las instituciones de la CAPV (y qué decir de Navarra con la CAN) se haya apoyado tan alegremente este proceso que, entre otras consecuencias, ha traído consigo que esas mismas instituciones hayan limitado enormemente su capacidad de incidir en la economía y en la sociedad vasca a través de un instrumento tan importante como la principal entidad financiera del país.

El Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y las entidades locales tendrían que haber defendido su capacidad de orientar la actividad de la hoy llamada Kutxabank a la canalización del ahorro local al tejido productivo y a actividades rentables socialmente. No es lo mismo que las instituciones tengan a su servicio una entidad financiera tan importante o que no lo tengan. Y han optado por no tenerla, y no solo eso. Han aplaudido el proceso, y han criticado a quienes lo hemos criticado y mostrado que había una alternativa que era mejor desde el punto de vista del país, de la economía y de la mayoría social.

**Una consecuencia de este cambio es el proceso permanente de desinversión industrial que viene desarrollando Kutxabank.** Podríamos decir que es un proceso de descontrol. El pasado 28 de diciembre, esta entidad vendió al Gobierno Vasco el 1,24% de las acciones de CAF a cambio de 15 millones de euros. La justificación de la operación ha sido clara: es parte de su política de reducción de participaciones industriales que exigen los reguladores. Es decir, Kutxabank es un banco, y a los bancos se les aplican unas determinadas reglas de valoración, de cálculo de diversos ratios, en los que está penalizado poseer participaciones industriales. Jugar en la Liga BBVA tiene eso.

Lo vimos antes con empresas como Ibermática o Euskaltel. Ser un banco más no tiene nada que ver con defender los intereses estratégicos de nuestro país. Están destruyendo la capacidad de incidir en la política industrial. Es muy grave y lo tenemos que volver a denunciar.

04

HITZA HITZ CON NOMBRE PROPIO



**Xabi Anza**
Responsable de Formación

# MÁS Y MÁS GENTE

En el momento de cerrar esta edición de **Landeia** se ha suspendido la sesión de investidura que iba a celebrarse en el Parlamento catalán y se están haciendo públicos mensajes privados del president Puigdemont al exconseller Comin, en el que al parecer se considera amortizado. Sea lo que sea, parece evidente que los acontecimientos que se han sucedido a partir del 1 de octubre y, sobre todo, la tremenda actitud del estado (represión policial, artículo 155, guerra judicial...) están a punto de romper las costuras de las fuerzas independentistas, si no lo han hecho ya. En el tiempo se verá si es una cuestión coyuntural y superable o se va agrandando la fractura. Es inútil, a día de hoy, tratar de dibujar escenarios de futuro.

Como sindicalistas vascos quizá éste es un buen momento para pasar a limpio algunas cosas. Porque lo que está pasando en Cataluña nos aporta enseñanzas fundamentales para los que abogamos por la plena soberanía vasca. Me atrevo a apuntar cuatro.

**La primera es que el Estado es duro, muy duro.** Que no hay posibilidad alguna de establecer entre Cataluña (o Euskal Herria) y España un diálogo bilateral, de igual de igual, y de buena fe. España es fuerte e impone la unidad sin escuchar a una nación que ha movilizado millones de personas a favor de otro estatus político. Tampoco un parlamento autonómico es suficiente para moverlo: no lo fue con el estatut (90% de apoyo) y no lo ha sido ahora. Ha aplicado el 155 y le ha ido, piensa, bien. Y el éxito de Ciudadanos apunta lo que viene: involución, más centralismo. De esa dureza tenemos que concluir que para alcanzar el derecho a decidir, catalán o vasco, se va a requerir una suma de fuerzas monumental. Hay que resignificar, además, la unilateralidad, porque el muro es más grueso de lo imaginado. Y la bilateralidad no existe.



## NATOren historia osoan estatukide baten barruko ezein naziorik ez da sekula "bereizi" atxikita zegoen estatutik. Katalunia da lortzetik hurbilen dagoena

**La segunda enseñanza es que el principal capital político de Cataluña es su gente, más que sus representantes, sus fuerzas políticas o sus instituciones.** Hablamos de 2 millones de personas empoderadas que protagonizaron un capítulo heroíco en defensa del derecho a voto, que alcanzaron una increíble victoria política, social, mediática, cibernética, discursiva... Lo que está pasando no nos debe hacer olvidarlo. Por eso, lo urgente, lo más decisivo, también en esta hora, es dar sentido y horizonte al momento presente. Prepararse para una lucha que va a ser larga, y marcar líneas de trabajo que se entiendan, que motiven, que ilusionen.

**La tercera enseñanza tiene que ver también con la gente, y es que hace falta más gente.** Y creo que el proceso pro-independencia ha tocado su techo si no es capaz de incorporar un proyecto de país ilusionante y alternativo a las políticas de ajuste y de empobrecimiento que en Cataluña se han aplicado igual que en todo Europa. Decía Ken Loach hace unos días que no acababa de ver la conexión entre los intereses de la clase trabajadora catalana y el proceso independentista. Algo similar señalaba un documento de una de las corrientes de la CUP (Endavant) al valorar las elecciones del 21 de diciembre. Hablamos de la suerte de las clases populares: trabajadores precarios, mujeres, pensionistas...

**Y la cuarta es que para alcanzar la soberanía hacen falta soberanías.** La manera en que el gran capital y empresas emblemáticas se han deslocalizado o han amenazado con hacerlo, reforzando la estrategia del estado, debería contribuir abonar un propósito definido: por razones ecológicas, climáticas y sociales, y también por aspiraciones nacionales, urge construir instrumentos (financieros, cooperativos, empresariales, energéticos...) comprometidos con la tierra y con la justicia social. Dicen que 500.000 personas se han dado de baja de La Caixa. No se si es cierto. Lo que sí es cierto es que hoy no hay una entidad bancaria alternativa y comprometida con el terruño que pueda gestionar la adhesión de 500.000 clientes en dos meses. Hay que crear los instrumentos que el capitalismo, durante décadas, nos ha robado.

Ninguna nación situada dentro de algún estado de la OTAN se ha "desmembrado" jamás en la historia de la alianza militar. Pero alguna lo conseguirá un día. Cataluña no ha fracasado. Todo lo contrario: es probablemente la que más cerca está de conseguirlo.

05

# GUTUNAK CARTAS

Esta sección pretende ser una tribuna abierta a las opiniones de nuestros/as afiliados y afiliadas sobre la actualidad económica, social y laboral. Aquellos/as que lo deseen deben enviar sus cartas a la siguiente dirección: Landeia, Cartas de los lectores. Barrainkua 13, 48009 Bilbao, o prentsa@ela.eus

## Ezagutza kulturala da

Batzuetan erlijioko irakasleen profesionaltasuna publikoki kolokan jartzen da (Landeiaren gutun atalean ere bai), baita ebaluatzeko duten gaitasuna zalantzan jarri ere.

Errealitatea, aldiz, desberdina da. Orain dela gutxi Eusko Legebiltzarrak ikasgai guztietako noten txostena argitaratu du, eta erlijioko nota beste ikasgai espezifikoena bezalakoa dela onartzen du.

Eskola publikoetako erlijio irakaslegoari erasotzea, ikasgaia erasotzeko tresna ere bihurtu da. Horregatik, gogoratu behar dugu Europako hezkuntza sistemetan erlijioko klasea errealitate bat dela, herrialdearen arabera era desberdinean gauzatzen dena, baina guztietan herritartasunaren formazioan erlijio-jakindurien ekarpena kontutan hartzen dela.

Bi adibide. Frantzian, herrialde laikoen eredu, eskolan izate erlijiosoaren presentzia gero eta gehiago aintzat hartzen da diziplinarteko eredu berri baten oinarrituta. Alemanian, erlijio ikasgaia eskolan dago normaltasunez, eta teología ikasketak ere unibertsitate publikoan eskaintzen dira, Finlandian, Danimarkan eta Britainia Handian bezala.

Espainiako Estatuak Vatikanoko Estatuarekin (eta beste erlijioekin) dituen akordioak zein ikasgaiaren curriculuma erlijioen aginpideen eskuetan egotea kolokan ipini ahal dugu zeren Europako herrialde gehienetan Administrazioak curriculum hori ezartzen du adituen laguntzaz.

Heziketa integral batek erlijioko jakintzaren heziketa-ekarpenak eskatzen ditu, hala nola bere oinarrizko baloreak, bizitzari zentzua emateko gaitasuna, gure aro honetako zibilizazio eta kulturetako historian zehar izan den bere papera, eta etikoki giza-eraikuntzarako ekarpena.

Erlijio ezagutza, beste edozein ezagutzak bezala, askeago egiten gaitu. Analfabetismo erlijiosoa ezin da izan jakinduria baino hobea.

Bestalde, eskola publikoan erlijio ikasgaiaren presentziaren kontrako eraso bat egiten denean, horrek gehienetan ere bere irakaslegoaren duintasun laboral eta pertsonalaren aurkako eraso bat dakar berarekin batera.

Irakasle hauek langile publikoak dira, beste lankideei eskatutako titulazio berdina eskatzen zaie, bere lanpostuetara Hezkuntza Sailak kudeatzen dituen esleipen publikoen bidez sartzen dira, berdintasuna, meritu eta gaitasunaren irizpideak erabiliz.

Erlijioko irakasleak klaustrokideak dira beste irakasleak bezala, eskubide eta betebehar berberekin. Langile hauek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren langileak dira. LOE (Ley Orgánica de Educación delakoa) ezartzearekin batera mugagabeko lan-kontratua luzatu zitzaien, sindikatuek eta alderdi politiko desberdinek adostutako akordio bati esker (PSOE, IU, ERC, EAJ-PNV, BNG, EA, EG, IPE,...).

Bere hitzarmen kolektiboa dute, komisio paritarioan hartzen dira beraien dagozkien erabakiak eta interpretazioak. Komisio horretan 19 ordezkaritik ELAk 11 ditu. Gure sindikatuak langile hauen duintasun laborala, profesionala eta pertsonalaren defentsan konpromisoa hartu du leku guztietan.

Eta guzti honetaz izan daitezkeen zalantzak, sektore honetako arduradunak zuen esanetara gaude.

**Jose Ramon Blanco Olalla eta sektoreko 11 delegatuak**

## EN RECUERDO DE JAVI AZKARAY GANZABAL



El pasado 26 de diciembre, todos los afiliados a ELA-TRI, muchos simpatizantes y trabajadores de diversa ideología, militancia y condición recibimos un auténtico mazazo al enterarnos del fallecimiento, tres días antes, con tan solo 52 años, de nuestro querido compañero y miembro de la sección sindical Javi Azkaray.

La vida da muchos golpes, pero es extremadamente difícil expresar con palabras el inmenso dolor que nos embargó al recibir una noticia de tal calado, máxime cuando se nos ha ido en la flor de la vida, dejando esposa e hija.

Como todo ser humano tenía sus luces y sus sombras, pero las primeras eclipsaban totalmente a las segundas. Era una persona de pocas palabras, pero cabal, afable, trabajadora, luchador, responsable, inasequible al desaliento y con las ideas muy claras. Siempre dispuesto a echar una mano a quien lo precisara, incluso con la salud mermada.

Persona de una pieza, sin dobleces. Como transmití a la sección sindical, "los seres queridos nunca mueren. Siempre viven en el recuerdo de quienes les quisieron".

Sirvan estas breves líneas como homenaje póstumo a un compañero pero, sobre todo, a un ser humano con mayúsculas. Su mujer, su hija, su hermana y el resto de sus familiares, al igual que todos nosotros, podemos estar realmente orgullosos de Javier. Donde quiera que esté, su huella y ejemplo permanecerán indelebles en nuestro recuerdo.

Algo muy profundo se ha roto en nuestros corazones, pero parte de él vive y vivirá en nuestro interior para siempre. Descansa en paz, y hasta siempre, compañero.

**Rodolfo Garitaonaindia Cruz**

# ZER BERRI
# ACTUALIDAD

› JUAN ANTONIO KORTA

## KONFEDERAZIOA

### Concentraciones de repulsa por los 4 accidentes laborales mortales del 1-F

El fallecimiento de cuatro trabajadores en Bizkaia el pasado 1 de febrero refleja la gravedad de esta lacra social, sin que desde las instituciones públicas se adopten las medidas necesarias para hacer frente a esta situación. La precariedad y los altos ritmos de trabajo, junto con la falta de medidas de seguridad, son las causas de la mayoría de los accidentes.

Los sindicatos ELA, LAB, ESK y STEEILAS realizaron una concentración el 6 de febrero ante la sede de Euskaltel, en Zamudio, ya que los dos operarios fallecidos en Loiu pertenecían a una subcontrata de la empresa de telefonía. El día 2, se celebró otra ante Diputación en recuerdo del trabajador de Bizkaibus y el del camión contra el que colisionó. Además, el 8 de febrero, los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEEILAS e HIRU convocaron distintas concentraciones; la central, a las siete de la tarde, ante la sede del Gobierno vasco en Bilbao.

### ELAk 38 urtez erabili du Erresistentzia Kutxa eta ogasunek ezarritako irizpideen arabera jokatu izan du beti

Bizkaiko Aldundiak Erresistentzia Kutxari buruz sindikatuei egin dien eskaria dela eta, ELAk honakoa adierazi nahi du: 38 urtez bitarteko hau grebak sostengatzeko baliatu izan duenean, euskal ogasunek ezarritako irizpideen arabera jokatu izan du.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Erresistentzia Kutxaren harira sindikatuoi luzatutako eskaeraren aurrean, ELAk argitu nahi du 38 urte daramatzala tresna hau erabiltzen greban dauden pertsonei sostengua emateko, eta beti, kasu guztietan, errespetatu dituela euskal ogasunek ezarritako baldintzak.

Zentzu horretan, ELAk jarraituko du, aurrerantzean ere, araudia betetzen.

Bestalde, adierazi ere, ELAk bidali ziola Bizkaiko Ogasunari beronek eskatutako informazio guztia.

ELAk nabarmendu nahi du gai honen inguruan prozedura bat egon zela aldez aurretik Arabako Foru Aldundian. ELAk egin beharreko alegazioak egin zituen eta azkenean, espedientea amaitutzat eman zen, alegia, artxibatu egin zen.

Sindikatuaren iritziz, Erresistentzia Kutxa ezinbesteko tresna da borroka sindikalerako. Hori dela eta, tresna hori erabiltzen jarraituko du, langileen lan baldintzak hobetzeko bidean.




### ELAk Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio manten dezala 35 orduko lanaldia

Auzitegi Gorenak berretsi egin du EAEko administrazioan 35 ordutako astea berrezarri zuen Dekretuaren baliogabetzea. Hau dela eta, ELAk Urkulluri galdegin dio autogobernua eta negoziazio kolektiboko esparrua defenda ditzala eta, hartara, bete dezala bere gobernuak 35 orduei buruz sinatu zuen Dekretua.

Gogoan izan behar da Urkulluren gobernuak 35 orduei buruz 2016an emandako dekretua 2010eko mahai orokorreko akordioa betetzea besterik ez zela, euskal administrazioko langileen lanaldiari buruz.

ELAk orduan ere adierazi zuen Estatuko abokatutzak Eusko Jaurlaritzaren Dekretua errekurritzeko hartu zuen erabakia euskal autogobernuaren aurkako eraso larria zela, berriro agerian uzten zuena Estatuaren inboluzio-agenda. Erabaki honek aldebikotasunaren mugak nabarmen uzten ditu.

Jaurlaritzak lanaldia luzatzea onartzen badu, autogobernuaren kontrako eraso larria izateaz gain, milaka lanpostu galduko lirateke: azkenekoz lanaldia luzatu zenean 1.500dik gora lanpostu suntzitu ziren, soilik Osakidetzan.

## Presoen dispertsioaren kontra Bilbon

Sare Elkarteak urtarrilaren 13an deitutako manifestazioan ELAren ordezkaritza zabalak hartu zuen parte, Adolfo Muñoz *Txiki*, idazkari nagusia tarteko. Sindikatuaren esanetan, beharrezko diren hari pertsonal, sozial eta politiko guztiak batu egin behar dira dispertsioaren eta euskal presoei zein hauen senideei ematen zaien tratu ankerraren harriak mugitzeko.

Halaber, ELAren ustez pozgarria izan zen Parisen abenduaren 9an izan zen manifestazio handia, non Iparraldeko indar politiko guztiek parte hartu zuten. Era honetan, ELAk positibotzat jotzen du Frantziako gobernua mugitu izana eta euskal presoak gerturatuko dituela iragarri izana. Zoritxarrez Espainiako gobernua beste muturrean dago; ez da gobernu demokratikoa.

## UGT, CCOO y CEN, contra el derecho a negociar en Navarra

UGT, CCOO y CEN han rechazado la propuesta de ELA y LAB para firmar un acuerdo interprofesional para evitar que los convenios estatales anulen los convenios sectoriales navarros. ELA y LAB trasladaron una propuesta a UGT, CCOO y CEN para la firma de un acuerdo interprofesional para otorgar prioridad aplicativa a los convenios sectoriales navarros frente a los suscritos en Madrid. El objetivo de la propuesta era garantizar que sean los trabajadores y trabajadoras navarras las que negocien sus condiciones de trabajo sin injerencias desde Madrid. En ese sentido, hay que recordar que en enero de 2017, ELA, LAB, UGT, CCOO y Confebask firmaron en la CAPV un acuerdo con las mismas características.

## Joxean Artze, langileekin konpromitiutako artista

Urtarrilaren 12an Joxean Artze artista hil zen, euskal kulturaren ezinbesteko erreferentea. ELAk bere dolumina bidali nahi dizkie Artzeren senide eta ingurukoei.

## ELA guztiz indarberriturik atera da bere hiru federazioen kongresuak egin ondoren

**ELA guztiz indarberriturik atera da abenduan zehar Iruñean, Gasteizen eta Donostian egindako hiru federazioen kongresuetatik,** %89 eta %95 arteko babesa jaso dutelako hautaturiko hiru zuzendaritza berriek. Guztira, 778 ordezkarik parte hartu dute hiru kongresuetan, eta 2017ko ekainean ELAk abian jarri zuen *Indarberritzen* ildoa berretsi egin zuteb dagozkien federazioetan.

**Industria eta Eraikuntza**ren II. Kongresuan 357 delegatuk parte hartu zuten abenduaren 19an Donostiko Kursaalean, *Langile indarra, aurrera. A recuperar lo nuestro!* lelopean. Federazio honen zuzendaritza berriak %94,96ko babesa jaso zuen. Unai Martinezek jarraituko du idazkari nagusia izaten. “Patronalak ez die uko egingo legez dituen abantailei, guk kendu behar dizkiegu –azpimarratu zuen Martinezek–. Antolakuntzaz baliaturik, hasi gara enpresak lan-erreformaren aurka blindatzen. Hasieran bakan batzuk, gero hamarka, geroago ehunka, enpresa handi eta txikiak”.

**Gizalan** zerbitzu publikoetako ELAren federazioak Gasteizko Europa Jauregian egin zuen bere kongresua abenduaren 14an, *GuztiONA indarberritzen* lelopean. Guztira, 231 ordezkarik parte hartu zuten, eta %92,66ko babesa eman zion zuzendaritza berriari, Igor Eizagirre idazkari nagusiari barne. Eizagirrek ELAren helburuak zehaztu zituen: "Iruñea eta Gasteizko gobernuek ezarritako murrizketen aurkako borroka, edota zerbitzu publikoak defendatzea, administrazioak garatzen ari diren pribatizazio politiken aurka".



**Zerbitzuak** federazioak abenduaren 12an egin zuen bere 8. kongresua Iruñeko Planetarioan, *OUT inor ez, INdarberritzen. Por un empleo de primera!* lelopean. Bertan, 190 ordezkarik babes handia (%89,33) eman zioten zuzendaritza berriari, eta Mari Kruz Elkoro idazkari nagusiak datozen lau urtetako ildo estrategikoak marraztu zituen: “azpikontratazioa eta outsourcing-aren aurkako borroka indartu behar da, eta genero ikuspegia modu berezian landu behar da, baldintza prekarioenak pairatzen dituzten langileak emakumeak direlako”.





Eta, bide batez, gure sindikatuak azpimarratu eta eskertu nahi du bere bizitza osoan zehar euskal langileekin izan zuen egiazko konpromisoa. Artzek urte luzez ELArekin kolaboratu egin zuen. 70. hamarkadan, besteak beste, sindikatuaren hirugarren kongresuaren irudia landu zuen, Eibarko Astelena frontoian ospatu zena (1976). Agur eta ohore, Joxean.

### Laborantza Ganbarak 13 urte bete ditu

ELAren ordezkaritza bat izan zen abenduaren 20an Ainhize-Monjoloseko egoitzan Laborantza Ganbararen hamahirugarren urtemugaren ospakizunean. Ipar Euskal Herriko nekazarien arduradunak, Beñak Molinosek datozen urteotako helburuak azaldu zituen batzarrean. Bere esanetan neurriak hartu ezean etxalde anaitzek ez dute segidarik izango. Era honetan formazioaren beharra nabarmendu zuen.

## FEDERAZIOAK

### Lanuztea udal eta foru Administrazioan enplegu egonkorraren eta lan baldintzen alde

ELA eta LABek mobilizazioak deitu dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien aurrean udal eta foru administrazioan enplegu egonkorraren eta lan baldintzen alde. Azken urteotan 3.400 lanpostu inguru galdu dira Udal eta Foru administrazioan. Hutsik geratu diren lanpostuak bete gabe eta zerbitzu osoak pribatizatuz, administrazio paralelo bat sortzen ari da. Eremu publiko honetako langileen %36 behin-behinekotasun egoeran dago. Are salagarriagoa da egoera hau, udaletako langileen lan baldintzak arautzen dituen Udalhitz hitzarmenak, behin behinekotasuna, gehienez ere, %6ra mugatzen baitu. ELAk eta LABek batzarrak deitu dituzte otsailerako eta 28an lanuztea izango da, 11etatik 15etara goizeko txandan eta 15tatik 19etara arratsaldekoan.

### El Gobierno Vasco y el Gobierno de Navarra deben mantener su palabra de incrementar el salario del personal público

El Gobierno español ha anunciado que no va a incrementar el salario a sus funcionarios/as, alegando que no se han aprobado los Presupuestos Generales, medida que tanto el Gobierno de Urkullu y Barkos van a hacer suya a pesar de que en los Presupuestos de la CAPV y de Navarra están consignadas las partidas correspondientes para subir el 1,5% el salario de decenas de miles de trabajadores y trabajadoras. ELA exige al Gobierno Vasco y al Gobierno de Navarra, así como al resto de administraciones vascas, que no renuncien al autogobierno y mantengan su palabra de incrementar el salario del personal público para 2018. Esta decisión incrementará la pérdida de poder adquisitivo por encima del 15% desde el año 2010.

### Acuerdo en la Casa de Misericordia de Iruñea

Tras cuatro meses de movilizaciones, ELA alcanzó un acuerdo en la Casa de Misericordia de Iruñea. El preacuerdo contempla las siguientes mejoras: una ultraactividad indefinida y textos antireforma; subida del IPC durante los 4 años de vigencia del convenio; reducción en dos días para todos los turnos y lo mismo para el personal contratado (en caso de contratos inferiores a 6 meses sería de 1 día); el compromiso de mantener el mismo número de trabajadores/as fijos/as e ir pasando a contrato indefinido por orden de antigüedad en el centro.

### Udaltzainak, hilean 600 euroren truke

Arkaute Euskal Polizia eta Larrialdietarako Akademia da. Orain arte, bai Ertzaintzan eta bai EAEko udaltzaingoan ere plaza lortzen zuten langileek sarrerako lehen formakuntza bertan egin izan ohi zuten. Akademian, derrigorrezko formakuntza jasotzen egongo diren 7 hilabeteetan, langile hauek 600 euroko soldata gordina kobratuko dute. Ez guztiek. Badaude salbuespenak. 600 euro gordinekin hilabete askotan bizi behar dute eta beraien etxeetatik Gasteizera joateak eragingo dien gastua ordaindu ere.

### Freno a las diferencias retributivas en la Policía Municipal de Bilbao

En las tres sentencias dictadas por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo número 2 de Bilbao, se establece no conforme a derecho abonar a los y las trabajadoras en prácticas salario de categoría inferior al que les correspondería. Así las cosas, ELA ha exigido al Ayuntamiento de Bilbao que acate las sentencias y que abone las diferencias salariales a todos/as los/as policías municipales. En opinión de ELA, la regularización debe extenderse a los/as agentes que han iniciado este año su formación y periodo de prácticas.

### Tres días de huelga en el sector de Intervención Social de Araba

Los paros convocados por ELA, LAB, CCOO, UGT y ESK en el sector de Intervención Social de Araba fueron secundados mayoritariamente por los trabajadores y trabajadoras, a pesar de los abusivos servicios mínimos decretados por el Gobierno Vasco. Los sindicatos exigen la firma del convenio en los términos preacordados en julio (se firmó un preacuerdo el día 27 en materia salarial y de jornada laboral para los años 2017-2020).

### Siguen las movilizaciones en el sector de Ayuda a Domicilio de Bizkaia

Las trabajadoras de Ayuda a Domicilio de Bizkaia están protagonizando diversos paros en defensa del convenio colectivo, ante la falta de voluntad negociadora de la patronal. El texto no se ha renovado






## Amplio seguimiento de la jornada de paro en Oficinas y Despachos de Bizkaia

El paro convocado el 1 de febrero por los sindicatos ELA, LAB, ESK, CGT y CNT en el sector de Oficinas y Despachos de Bizkaia fue secundado mayoritariamente por los trabajadores y trabajadoras del sector. ELA ha valorado positivamente el seguimiento del paro y la manifestación que se desarrolló en Bilbao, con la participación de cerca de 4.000 personas. Los trabajadores/as del sector denuncian que la patronal vizcaína Cebek pretende perpetuar la precariedad laboral. El convenio afecta a más de 23.000 personas en Bizkaia desde 2016. ELA ha denunciado que la precariedad sigue aumentando en este sector feminizado y que los servicios que se prestan se están reduciendo en los últimos años, al mismo tiempo que los ayuntamientos están bajando los precios de las licitaciones. Las movilizaciones continuarán con paros de tres horas los días 12 y 27 de febrero.

## Acuerdo en la Fundación Navarra para la tutela de las personas adultas

ELA firmó el 21 de diciembre el II convenio colectivo de la Fundación Navarra para la tutela de las personas adultas, con una vigencia de 4 años a partir de su entrada en vigor (31 de diciembre de 2017). El nuevo convenio supone una apuesta decidida por mejorar las retribuciones de las profesionales, con el objeto de alcanzar el 95% de la remuneración del personal de la Administración Pública de las mismas categorías. De esta forma, las profesionales de nivel B experimentarán un incremento salarial del 18,8%, y las de nivel C, de un 27% a lo largo de los 4 años de vigencia del convenio. Así mismo, se reconoce un complemento de antigüedad, se mantiene la jornada de 1.592 horas y se actualizan y mejoran todas las cuestiones sociales como permisos, licencia e incapacidad laboral.

## Convocado un paro el 20 de marzo en la enseñanza concertada de la CAPV

ELA, sindicato mayoritario, junto con el resto de las organizaciones, ha convocado una jornada de paro para el 20 de marzo en el sector de la enseñanza concertada.

Los sindicatos acusan a Kristau Eskola y a la patronal AICE-IZE de no tener ninguna voluntad de llegar a acuerdos. Desde el 29 de noviembre, que se celebró la última reunión negociadora de los centros de iniciativa social, no se han producido avances.

Asimismo, el 22 de febrero se ha convocado una manifestación en Bilbao para calentar motores y preparar y socializar el paro en el sector.

## CNA plantea un expediente de extinción de contratos en Edesa Industrial y Geyser

La dirección de CNA-Fagor comunicó el 8 de enero a los comités de empresa la decisión de iniciar un expediente de extinción de contratos de toda la plantilla, así como la liquidación de la sociedad Geyser Gastech. Se trata de desmantelar la empresa y su actividad industrial.

Por contra, los comités de empresa de Edesa Industrial y Geyser reiteraron que “puede haber futuro para los 160 trabajadores y trabajadoras de la actual plantilla y para las personas que han quedado fuera, siempre y cuando haya un plan de

## Un mes de huelga en la OTA de Bilbao

Tras más de un mes de huelga, la plantilla de la OTA de Bilbao ha denunciado que la empresa adjudicataria del servicio -la UTE formada por EYSSA y CYCASA- pretende utilizar los 7 despidos realizados durante el proceso de negociación del convenio como chantaje. “El objetivo es que aceptemos rebajar las condiciones que actualmente tenemos”. La plantilla ha denunciado, asimismo, que esta UTE licitó de "manera temeraria para poder quedarse con el servicio" y está utilizando el conflicto -que está alargando premeditadamente- para tratar de conseguir "una mejora en el pliego de condiciones o una rescisión del contrato por parte del Ayuntamiento de Bilbao con indemnizaciones millonarias".

La plantilla ha solicitado al Ayuntamiento que se implique en la búsqueda de una solución, al tiempo que le recuerda que ha dejado de recaudar más de un millón de euros siendo nulo el perjuicio padecido por la empresa.



empleo viable". Para ello, exigen la implicación de las Instituciones, Administrador Concursal y Fagor, S.Coop., de cara a construir una alternativa a este proyecto especulativo e inasumible.

## Gipuzkoako Neguko Bidezaintza Plana prekarioa, arriskutsua eta iruzurrezkoa da

ELAk Neguko Bidezaintza Planean ezarritakoa xehetasunez ezagutze aldera, bilera eskatuko dio berriz Gipuzkoako Foru Aldundiari. Izan ere, Neguko Bidezaintza Planaren alerta-egoera bakoitzari aurre egiteko behar diren baliabide materialak zein diren jakiteaz gain, ELAn ezaugutu nahi duguna da, ez baitugu ezagutzen, zein giza bitarteko behar diren ekipamenduak erabiltzeko. ELAren aburuz ez dago langile nahikorik horrelako gertaerak behar bezala eta eraginkortasunez bideratzeko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak badu horren berri. Elurra kentzeko langileen kopurua erdira jaitsi da lau urtetan Gipuzkoan, 322tik 150ra, hain zuzen ere.

## La UTE Civil Zubieta garantizará la aplicación del convenio de la construcción de Gipuzkoa

Una denuncia de ELA ha obligado a la UTE Civil Zubieta, responsable de la construcción de la incineradora, la aplicación del convenio de la Construcción de Gipuzkoa a sus más de 100 trabajadores y trabajadoras.

Según ELA, las jornadas abusivas, los ritmos exagerados de trabajo y los salarios de miseria eran habituales en el tajo. En concreto, las jornadas llegaban hasta las 11 horas diarias, y en algunos casos los operarios realizaron 27 jornadas consecutivas sin ningún día de descanso.

La mayoría de los trabajadores y trabajadoras de las diferentes subcontratas cobraban hasta un 60% menos de lo estipulado en el convenio de la Construcción de Gipuzkoa.

## ELA evita la doble escala salarial en DHL-Mercedes

Las presiones de la dirección de Mecedes de Gasteiz no han logrado su objetivo: introducir la doble escala salarial en DHL. Un acuerdo ha puesto fin a 15 meses de negociaciones. El convenio tendrá una vigencia de cinco años (2016-2020) y recoge incrementos entre el 1,10% y el 1,25% para este periodo. El convenio garantiza la subrogación y que los contratos de ETTs se revisen semestralmente para que el 86% de la plantilla sea indefinida.

## Más de dos meses de huelga en Alfa Precision Casting

La mayoria de la plantilla de Alfa Precision Casting, de Eibar, se encuentra en huelga desde hace más de dos meses en protesta por el expediente de regulación de empleo presentado por la dirección que, posteriormente, se convirtió en una solicitud de liquidación de la empresa.

## ELA no firma el convenio estatal de Seguridad Privada

ELA no ha suscrito el convenio estatal de Seguridad Privada firmado por CCOO, UGT y USO para los años 2017-2020. ELA recuerda que se parten de una condiciones muy precarias, con salarios muy bajos, jornadas prolongadas y condiciones sociolaborales también precarias. Además, los incrementos que finalmente acaban aplicándose son modificados sistemáticamente por las empresas durante la vigencia del convenio.



**Itzarriko murrizketak ez ditu oraindik bertan behera utzi Eusko Jaurlaritzak »** Urtarrilaren 23an Itzarriren Gobernu Batzordea bildu zen. Itzarri, Eusko Jaurlaritzaren esanetara lan egiten duten behargінen BGAEa (Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundea) da. Bileran Josu Erkoreka erakundearen lehendakari, Jaurlaritzaren bozeramaile eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailburu denak iragarri zuen exekutiboak 2018an %0,5eko ekarpena egingo zuela Itzarrira. ELAren iritziz igoera ez da nahikoa. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 2012an erabaki zuen Herri-Administrazioko langileen Lan Hitzarmenari dagozkion ekarpenak ez egitea, eta ordutik hona ez du euro bat ere jarri.

**La OPE del Estado sólo cubre las jubilaciones »** La convocatoria de OPE publicada el pasado mes de enero en el BOE no es, según explica ELA, una convocatoria nueva sino que ya fue anunciada por el Gobierno del estado el pasado julio del 2017. Esta convocatoria, tal como ya denunciamos en su día, es absolutamente insuficiente ya que en los últimos 6 años se han destruido más de 32.000 puestos de trabajo en el ámbito de la Administración General del Estado.

El Gobierno español debería haber convocado 28.000 plazas más, solo para recuperar el número de efectivos de 2010.

**DIAko eguneko ogia: esplotazioa eta kaleratzeak! »** Gipuzkoako DIAko dendetan bizitzen ari diren egoera jasanezina da. Enpresa Batzordeak denbora luzea darama egunerokoan bizi dituzten arazo estrukturalak konpontzeko ahaleginetan, baina ez dago egoera aldatzeko borondaterik enpresaren aldetik. Egunero sufritzen duten esplotazioa salatu zuten abenduaren 22an kontzentrazio batekin.

# Mejores condiciones laborales, mejor calidad asistencial

## LA PLANTILLA DE LA CLÍNICA LA ASUNCIÓN, DE TOLOSA, INTENSIFICA LAS MOVILIZACIONES EN FEBRERO EN DEFENSA DEL CONVENIO




› J.JAIO

**ELA y LAB han convocado una nueva tanda de huelgas y movilizaciones** a lo largo de febrero en la Clínica La Asunción, de Tolosa, en defensa de un convenio que ponga fin al deterioro de las condiciones laborales y la calidad asistencial, y de pasos hacia la homologación con el personal directo de Osakidetza. Alazne Mantxola, responsable de Gizalan en Oria-Goierri, tras valorar positivamente las movilizaciones llevadas a cabo hasta el momento, emplaza al Servicio Vasco de Salud a implicarse en el conflicto, ya que esta clínica funciona como hospital comarcal.

**-Qué valoración hacéis de las huelgas y movilizaciones llevadas a cabo en diciembre y enero?**

-La valoración es positiva. A pesar de los elevados servicios mínimos impuestos con los que la Administración siempre intenta invisibilizar y neutralizar los conflictos en los servicios públicos, lo cierto es que los/as trabajadores/as han apoyado de manera sensible los paros. De hecho, la propia empresa, tras el segundo día de huelga, se movió de su posición antinegociadora inicial, aunque su propuesta está todavía a años luz de nuestras reivindicaciones.

**-Motiváis la huelga en "la grave precarización de las condiciones laborales que ha sufrido la plantilla en los últimos años".**

-Así es. La vigencia del anterior pacto de empresa -5 años- concluyó en 2010. Es decir, llevamos supuestamente negociando 7 años el nuevo convenio; tiempo en el que no hemos hecho otra cosa que perder derechos y condiciones. La empresa no quiere hablar -de momento- de la recuperación del poder adquisitivo: dependiendo de la categoría profesional hemos perdido entre 3.000 y 5.000 euros anuales. Por lo que respecta a la jornada anual, estamos en las 1.670 horas, muy lejos de las 35 horas semanales de Osakidetza, y no ha tenido ningún tipo de reducción desde el año 2010.

A ello hay que añadir la falta de personal, la irregularidad en la contratación y el aumento de las cargas de trabajo, que son una constante en estos últimos años. Una consecuencia muy gráfica de la precarización de las condiciones laborales de la plantilla es que estamos perdiendo facultativos, que se marchan a otros hospitales con mejores condiciones: A Tolosaldea le corresponderían 6,5 especialistas en Traumatología pero, a fecha de hoy, se han ido 4, a los que no se encuentran sustitutos.

Además, las órdenes transmitidas desde la presidencia de la Clínica La Asunción a la dirección médica es que las urgencias quirúrgicas de Trauma se deriven al Hospital Universitario de Donostia, dejando sin atención la comarca.

**-Lucháis por las condiciones laborales pero también por la calidad del servicio asistencial que se presta.**

-Sin duda. En esta clínica concertada con Osakidetza trabajan a día de hoy más de 330 personas, que dan servicio sanitario a Tolosaldea, que ronda los 65.000 habitantes. Creemos que el Departamento de Salud, con el señor Darpón a la cabeza, tiene una responsabilidad hacia los/as trabajadores/as y usuarios/as de la Clínica La Asunción, al tratarse de un centro concertado casi en su totalidad. Entendemos, por tanto, que la dirección es responsable de la precarización de nuestras condiciones de trabajo, pero Darpón, su cómplice.

De hecho, en esta nueva fase de movilizaciones vamos a intentar implicar al Departamento como resposable último del servicio, así como socializar el conflicto. Los usuarios y usuarias tienen que ser muy conscientes de que calidad de servicio asistencial y condiciones laborales dignas están ligadas. La buena atención asistencial que se consigue mantener a duras penas es gracias al compromiso personal de las/os profesionales, y no a la gestión.

### Kalitatezko osasun zerbitzu baten alde

Asuncion Klinikako langileek zuzendaritzari eskatzen diote: eros-ahalmena berreskuratzeko benetako pausoak ematea; urteko lanaldia 1.592 ordutara gerturatzeko pausoak ematea; pertsonala handitzea; hauen kontratazioa erregularizatzea; eta lan zamak hobetzea.

Langileen helburua Tolosaldea eskualdeko 65.000 biztanleei kalitatezko osasun zerbitzua eskaintzea da; enpresarena, berriz, langileen lan baldintzak eta osasun zerbitzuak prekarizatuz dirua irabaztea.

# Gasteiz: el chantaje de la interinidad

LUCHAR CONTRA LA INTERINIDAD Y RECUPERAR EL PODER ADQUISITIVO PERDIDO ESTOS ÚLTIMOS AÑOS SON LOS PRINCIPALES OBJETIVOS DE ELA EN EL AYUNTAMIENTO DE GASTEIZ



› GORKA QUEVEDO

**"La interinidad en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz es alarmante.** Hablamos de un 40% de personal en esta situación. Entre ellas hay alrededor de 500 personas trabajando dentro de diferentes contratos programas, sin ninguna garantía de continuidad; la situación laboral es una bomba". Así hablan Karmele Segurola y Tito Vidal, responsables de la sección sindical de ELA –primer sindicato, con 14 de 30 delegados/as– en el Ayuntamiento de Gasteiz.

Este no es un problema nuevo, ni mucho menos. Es la consecuencia de una apuesta por la precariedad que viene de años atrás. Al margen de policías y bomberos, hace doce años –desde 2006– que no se convoca una Oferta Pública de Empleo (OPE), y aquélla solo afectó a unas pocas categorías. El actual equipo de Gobierno, encabezado por Gorka Urtaran (PNV), al acceder a la alcaldía dijo estar dispuesto a convocar una OPE general y hacer un reconocimiento de deuda del 5%, pagadero a lo largo de la actual legislatura. Con la entrada del PSE-EE en el equipo de Gobierno y la llegada de Iñaki Gurtubai (PNV) como coordinador general, retiraron la propuesta.

**Chantaje.** Karmele Segurola y Tito Vidal denuncian que los distintos equipos de gobierno han utilizado la temporalidad para chantajear a las y los trabajadores municipales. "Una de las principales características del personal interino es su edad: más de 50 años, de media. Hablamos de gente que lleva desde los años 80 del siglo pasado sin que se estabilice su plaza. Por eso, en ELA estamos luchando para conseguir una OPE justa que acabe con la interinidad y sirva para solucionar la situación de toda esa gente que lleva décadas trabajando sin que puedan estabilizar su situación".

> **"Esperientziak erakusten digu borroka eta mobilizazioa direla gure lan eta bizi baldintzak hobetzeko dugun tresnarik eraginkorrena"**

**"Seguiremos movilizándonos".** Ante esta coyuntura, ELA lleva mucho tiempo movilizándose en defensa de unos servicios públicos de calidad y unas condiciones laborales dignas. "Llevamos años en lucha, y en el futuro seguiremos por el mismo camino. Hemos planteado al resto de sindicatos un calendario de movilizaciones que se alargará, de momento, hasta el verano. Aquí hay una cosa que no se puede obviar: lo que tenemos, lo hemos conseguido movilizándonos. Gracias a la lucha, estos últimos años hemos conseguido, por ejemplo, la devolución de la paga-extra del 2012, la vuelta a las 1.592 horas anuales, el reconocimiento de las horas sindicales o la reversión de las aportaciones a Elkarkidetza".

**La sección sindical de ELA tiene claro cuál es su objetivo y la solución.** "En la actualidad hay más de mil plazas vacantes; para bajar al 6% de temporalidad que se puso como objetivo Eudel se necesitaría una OPE de más de 900 plazas. Un objetivo que es perfectamente posible, si hay voluntad política".

Recuperar el poder adquisitivo perdido por el personal municipal la última década es el otro gran objetivo que tiene ELA. El personal del Ayuntamiento de Gasteiz ha tenido el salario congelado desde 2006 hasta 2016, año en que se subió el sueldo el 1% que permitió Rajoy, igual que en 2017. "Además, en 2010 se nos bajó el sueldo como al resto de personal de las administraciones".

La sección sindical destaca la importancia de renovar el convenio colectivo con la recuperación del poder adquisitivo perdido y garantizando la estabilidad del personal. "Hablamos de condiciones imprescindibles para prestar los servicios más cercanos a la ciudadanía con la calidad que se merece".

Enfrente, un equipo de Gobierno formado por PNV y PSE-EE que se niega a negociar un convenio colectivo que mejore las condiciones laborales y de vida del personal municipal. "El alcalde, Gorka Urtaran, el coordinador, Iñaki Gurtubai, o la concejala de personal se han aprendido el discurso a la perfección: 'tienen que cumplir la Ley'. Solo dicen que tanto la norma de techo de gasto como las tasas de reposición están establecidas por ley. Su guion no se sale de ahí. Lo que no dicen es que su partido ha apoyado y aprobado con sus votos esas leyes, lo que le convierte en cómplice de la situación". "Revertir la enorme temporalidad y recuperar el poder adquisitivo es una mera cuestión de voluntad política, nada más".

EKOLOGIA
MEDIO AMBIENTE

GIPUZKOAKO HONDAKINEN BIRZIKLAPEN DATUAK OKERRERA DOAZ ERRAUSTEGIA ERAIKITZEN ARI DIREN BITARTEAN. LASAI BERAZ BATZUK; ERRAUSTEGIAK ZER ERRE ZIURTATUTA DAUKA

# 2018an ere erraustegirik ez!

› AINHARA PLAZAOLA

**Urteko lehen hilabeteetan ohikoa izaten da aurreko urtearen balorazioa egitea.** Gure instituzioetan dauden agintariei ere gustatzen zaie hau egitea, batez ere emateko dituzten datuak, beraien ustez, onak badira. Urtero bezala hondakinen kudeaketari loturiko iazko datuak ematen ari zaizkigu, eta egiten duten balorazioa ezin hobea omen da. Ez gaude gu balorazio positibo hauekin ados.

Gipuzkoaren kasuan, hondakinen kudeaketa eredua aldatu zenetik, datuak urtez urte okerragoak dira. Geroz eta gutxiago birziklatzen da. Eta hondakin organikoen kasuan, atzerakada are larriagoa da, asko kostatu baita jendeari organikoa birziklatzeak duen garrantzia azaldu eta birziklatzea ezinbesteko kontua dela azaltzea. Orain ordea Gipuzkoako herri askotan eman den bilketa sistema aldaketarekin nahi izanda ere organikoa, eta orohar, hondakinak birziklatzea gero eta zailagoa da. Eta noski, honek errefusa kopuruak gora egitea ekarri du.

Hondakinen kudeaketa eredu iraunkor bat defendatzen dugunok birziklatu ezin daitezkeen hondakinei eman beharreko tratamenduak ditugu erronka nagusi. Eta badakigu errefusa deritzon horren kantitateak jaistea oso zaila dela. Ondorioz, errefusa kopuruek gora egitea oso datu kezkagarria da. Ez da ordea horrela ikusten erraustegia bai ala bai eraiki nahi dutenen aldetik, nahiz eta publikoki horrelakorik esan ez.



Erraustegiak errefusa behar du erregai gisa, beraz errefusak gora egitea ezinbestekoa da negozioa egiteko. Honi gehitu behar zaio Zubietako erraustegia eraikitzeko obrak hasiak direla. Erraustegia da Gipuzkoako Foru Aldundiak duen hondakinen kudeaketa sistemaren oinarria. Bilketa selektiboaren datuak gora egiten ez duten bitartean errefusa egongo da erraustegiarentzat eta negozioa egin ahal izango da. Eta hau ELArentzat onartezina da. Ez dugu inolaz ere erraustegirik eraikitzerik onartzen, ez hemen ez inon.

**Hamaika arrazoi.** Azpimarratu nahi ditugu erraustegiaren aurka egoteko ditugun arrazoi nagusiak, borroka honetan urteak pasa eta informazioa azaleratzen den heinean gero eta indar gehiago hartzen baitute gure arrazoiek.

Arlo ekonomikoan aipatzekoak dira banketxeekin sinatu ziren kontratu ilunak, gipuzkoarrontzat guztiz kaltegarriak direnak, swap direlakoak eta kalte ordain neurrigabeak esaterako. Betikoei esleitzen zaie azpiegituraren eraikuntza, martxan jartzea eta mantenua. Ondoren, erretzeko hondakinak beti izango direla ziurtatzen zaie hautazko birziklapenaren bitartez. Negozio borobila herritarron kontura, gipuzkoarron benetako beharrei erantzuteko beharrezkoa den diru publikoaren kontura. Ahaztu gabe, negozioa egiten duten bitartean langileei lan baldintza guztiz prekarioak ezartzen zaizkiela. Ingurumenari dagokionez, erraustegiak zabortegi toxikoak behar ditu erretzen diren hondakinetatik sortzen diren errauts eta hondakin toxikoentzat. Bestalde berotegi efektuko gasen emisioak ere handiak dira, are gehiago kontuan izanik hondakinak erre ahal izateko gas naturala erabiltzen dela. Beraz ez da egia hondakinetatik energia berriztagarria ateratzen dutenik. Eta osasunean eragiten dituen kalteei dagokienez, hondakinak erretzeak kutsatzaile toxiko asko igortzen ditu atmosferara eta inguruko nekazal lurretan ere metatzen dira. Zer esanik ez erraustegiaren inguruan lanean ari diren langileek eta inguruan bizi direnek pairatzen dituzten osasun ondorio larriez.

Gutzi hau jakinda, ba al dago oraindik arrazoirik erraustegia eraikitzen jarraitzeko? Guk ez dugu inoiz izan, baina badirudi erabakiak herritarrokin kontsultatu gabe hartzen dituzten horiek badutela arrazoi ezkuturen bat. Negozioa egitea besterik ez da geratzen.

## EL 28 DE FEBRERO, CONCENTRACIÓN ANTE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA POR LA GESTIÓN DE LOS RESIDUOS

**Las Juntas Generales de Bizkaia aprobarán la prórroga del Plan Integral de Residuos de Bizkaia 2005-2016 sin plantear ningún cambio de dirección en la gestión de residuos y sin ninguna participación.**

**En esta última década hemos conocido muchas experiencias de gestión sostenible de residuo, pero parece que en Bizkaia no va a haber cambio de dirección en la gestión de residuos. Seguiremos anclados en el siglo pasado y anclados a la incineradora.**

**Por eso, llamamos a todas las personas de ELA para que participen en la concentración convocada por Bizkaia Zero Zabor el 28 de febrero frente a las Juntas Generales.**

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# Diru-bilketa berdintasun eza handitzearen kontura hazi da

HEGO EUSKAL HERRIAN BILTZEN DEN DIRUA ERA BIDEGABEAN EGITEN DA, LANGILEON BIZKAR EGITEN DELAKO. GAINERA, IZANDAKO BILKETAREN HAZKUNDEAK EZ DU GASTU SOZIALEAN ONDORIORIK IZANGO

**El aumento de la recaudación no se va a traducir en un incremento del gasto social**



› IÑAKI ZABALETA

**Bai EAEko Foru Aldundiek nola Nafarroako Gobernuak 2017ko diru bilketaren emaitzak aurkeztu dituzte.** Berri ona da Hego Euskal Herrian diru-bilketa hazi izana, zalantzarik gabe, baina noren kontura hazi den eta zertarako erabiliko den dirua ere aztertu beharrekoak dira.

Politika fiskalari dagokionez, Hego Euskal Herriko administrazioen diru-bilketa oso txikia dela kritikatzen dugu beti. Izan ere presio fiskalari dagokionez, Hego Euskal Herria Europako Batasuneko bataz bestekoaren oso azpitik dago. Azken datuen arabera (2015ekoak), hemengo presio fiskala %31koa izan da, Europa mailan batez bestekoa %38,7koa izan den bitartean. Beraz, Hego Euskal Herriarekiko aldea BPGko 7,7 puntukoa da. Horrek esan nahi du Hego Euskal Herriko presio fiskala EB-28ko berbera izateko 6.727,9 milioi euro gehiago bildu behar direla (5.052,8 EAEn eta 1.675,1 Nafarroan).

**Diru-bilketa gehiago.** Diru-bilketaren 2017ko datuek erakusten dutenez, EAEko Foru Aldundiek 2016an baino 1.523,2 milioi euro gehiago bildu dituzte, %11,8 gehiago, eta Nafarroako Ogasunak 432,9 milioi euro gehiago, %13,3 gehiago. Beraz, esan liteke diru gehiago biltzea berri ona dela, baino oraindik ere alde izugarria dagoela Europa mailan biltzen denaren bataz bestekoarekin.

**El importante aumento de la recaudación se produce, básicamente, a costa de las rentas del trabajo**

Dena den, diru-bilketaren hazkundearen inguruan bi gauza azpimarratu behar dira. Batetik hazkunde hori lan errenten kontura ematen dela, eta bestetik gehiago biltzeak ez duela suposatuko gastu soziala handituko denik.

Politika fiskalaren bitartez erabakitzen da nork ordainduko dituen zergak, nork ez, nori igo eta nori jaitsiko zaizkien. Zentzu honetan argazkia oso argia da, azken hamarkadan langileon kontura igo da diru-bilketa.

EAEn, lan errentek 2017an 2007an baino 726,9 milioi euro gehiago ordaindu dituzte (4.040,7 milioi eurotik 4.767,6ra pasa da langileok ordaindutakoa), hau da, %18 gehiago. Enpresek, aldiz, Sozietateen Zerga bidez 1.111,7 milioi ordaindu dituzte, duela 10 urte baino 922,5 gutxiago, %45,4 jaitsi da enpresek ordaindutakoa.

Beste modu batera ikusita, 2007an lan errentek diru-bilketa osoaren %29,3a suposatzen zuten, eta 2017an guztiaren %32,9a. Enpresek ordaindutakoa aldiz, %14,8tik %7,7ra pasatu da 10 urte hauetan.

**Nafarroan ere antzerako bilakaera eman da.** 2017an 2007an baino 89,7 milioi euro gehiago bildu dira, baina laneko er
renten kontura. Izan ere, laneko errentek 2017an duela 10 urte baino 208,3 milioi euro gehiago ordaindu dituzte, %19,7 gehiago, eta enpresek, aldiz, 337 milioi euro gutxiago, % 131,6 gutxiago alegia (593 milioi ordaintzetik 256 milioi ordaintzera pasa dira enpresak).

## EAEko Foru Aldundien diru-bilketa

| | 2017 | 2017 | Diferentzia euro | % |
|---|---|---|---|---|
| Laneko errentak | 4.040,7 | 4.767,6 | 726,883 | 18% |
| Sozietateen zerga | 2.034,2 | 1.111,7 | -922,51 | -45,4% |
| Diru-bilketa osoa | 13.772,1 | 14.473,9 | 701,805 | 5,1% |

## Nafarroako Ogasunaren diru-bilketa

| | 2017 | 2017 | Diferentzia euro | % |
|---|---|---|---|---|
| Laneko errentak | 945,7 | 1.177,6 | 231,9 | 19,7% |
| Sozietateen zerga | 593 | 256 | -337 | -131,6% |
| Diru-bilketa osoa | 3.593 | 3.682,7 | 89,7 | 2,4% |

## La injusta política fiscal provoca un incremento de las desigualdades sociales y de la pobreza

## Reivindicamos una política fiscal que traiga un reparto más justo de la riqueza

Honek suposatzen du 2007an laneko errentek diru-bilketa osoaren %26,3a ordaintzen zuten bitartean, 2017an guztiaren %32a ordaintzera pasa direla, eta enpresek ordaindutakoa, aldiz, %16,5etik %7ra pasatu dela 10 urte hauetan.

**Zeharkako zergek gero eta zama handiagoa dute.** Honetaz gain, bai EAEn eta baita Nafarroan ere zeharkako zergek gero eta zama handiagoa dute, eta zuzenekoek gero eta txikiagoa. Hau da, zerga ordaindu behar duenaren errenta maila kontuan hartzen ez duten zergek, zeharkakoek, 2007an %50,4 suposatzen zuten EAEn eta %43,1 Nafarroan. 2017an aldiz, % 53,6a suposatzen dute Hego Euskal Herri osoan.

Hau da, laneko errentek askoz gehiago ordaintzen dugu, enpresek askoz gutxiago, eta denok berdin ordaintzen ditugun zergak (BEZ, alkoholaren gainekoak, hidrokarburoak, eta abar) ere gero eta zama handiagoa dute. Guzti honek fiskalitatea langileontzat duela 10 urte baino askoz ere injustuagoa izatea suposatzen du.

Gainera, diru-bilketaren hazkundea ez da gastu sozialaren hazkundean bihurtuko. Nahiz eta 2017a superabitarekin bukatu, hazkunde hau ez da gastu sozialera joango.

Izan ere, bai Urkulluren Gobernuak eta bai Nafarroakoak Rajoyren Gobernuarekin adostutako gastu erregelak zor publikoa ordaintzera behartzen du aurreikusitakoaren gainetik bildutakoa. Hau da, diru-bilketaren hazkundetik jasotako milioi bakar bat ere ez da behar sozialak asetzera bideratuko.

**Argazkia ez da batere ona langileontzat:** gehiago ordaintzen dugu, enpresek gutxiago, eta gainera diru-bilketaren hazkundetik jasotakoa zor publikoa ordaintzera bideratuko da, ez gastu sozialera.

Berdintasun ezaren eta pobreziaren hazkundea da egiten den politika fiskalaren ondorioa. Ez dira langileon interesak babesten dituzten politikak inondik inora. Beharrezkoa da diru-bilketa gehiago haztea, baina justizia sozialaren bidetik. Aberastasunaren banaketa justua egitea.

# MÁS DE LA MITAD DEL PARO ES DE LARGA DURACIÓN

**Los datos de empleo muestran que la población parada ha disminuido en 18.800 personas el último año,** si bien las personas que tienen un empleo, las ocupadas, no ha aumentado a ese mismo nivel (16.700 más).

Esta evolución está siendo utilizada para tratar de ocultar que la situación del empleo es notablemente peor que la de hace 10 años, a pesar de que el nivel de riqueza generada es claramente superior.

Aunque desde 2007 la población total de Hego Euskal Herria ha aumentado en 36.600 personas, la población activa, la población ocupada y la asalariada han disminuido (en 49.200, 110.700 y 22.800 personas respectivamente). En cambio, en este mismo periodo la economía ha crecido un 9,7% (el PIB).

**Por otro lado, la temporalidad afecta al 25,4% de quienes tienen un trabajo asalariado,** siendo más alta entre las mujeres (del 27,6%). En este sentido, es inaceptable, y responsabilidad directa del Gobierno Vasco y de Navarra, que la temporalidad del sector público sea aún más alta que en el sector privado (es del 33,4%). Así, el sector público representa el 15,6% de la población ocupada y supone el 23,8% de la temporalidad total.

**Además, el 27,1% de las mujeres tienen un trabajo a jornada parcial,** mientras que el porcentaje de los hombres es del 7,4%.

**En cuanto a la tasa de paro, en Hego Euskal Herria es del 10,4%, muy superior al 7,3% de media de la UE-28.** Además, es alarmante que el 52,6% de las personas en paro lleve más de un año buscando empleo.

Los datos del empleo no son buenos. La bajada del paro se hace a costa de las condiciones laborales, y la evolución del empleo es peor que la evolución de la economía.

## Gaur egungo langabeziaren tasa bikoizten du orain dela hamar urtekoa

# LEGEAREN BUELTAK
# PÁGINAS JURÍDICAS

CALENDARIO LABORAL 2018 CAPV y NAVARRA

## Fiestas retribuidas y no recuperables

### Jaiegun ordaindu eta berreskuraezinak

**1 › Urtarrilak 1 de enero:**
Urte berria / Año Nuevo.

**2 › Urtarrilak 6 de enero:**
Erregeak / Reyes.

**3 › Martxoak 29 de marzo:**
Ostegun Santua / Jueves Santo

**4 › Martxoak 30 marzo**
Ostiral Santua / Viernes Santo.

**5 › Apirilak 2 de abril**
Bazko Astelehena / Lunes de Pascua.

**6 › Maiatzak 1 de mayo: :**
Langileen eguna / Fiesta del Trabajo.

**7 › Abuztuak 15 agosto:**
Andra Mari eguna / Asunción.

**8 › Urriak 12 de octubre:**
Pilarika / El Pilar.

**9 › Azaroak 1 noviembre:**
Domusantua / Todos los Santos.

**10 › Abenduak 6 de diciembre:**
Konstituzioa / Constitución.

**11 › Abenduak 8 de diciembre:**
Sortzez garbiaren eguna/ Inmaculada.

**12 › Abenduak 25 de diciembre:**
Natibitate eguna / Natividad.

### EAEko JAIEGUNAK / FIESTAS DEL TERRITORIO DE LA CAPV

**13 › Gainera / además:**

*** › Araba / Alava: Apirilak 28 de abril:** Prudentzio donea / San Prudencio.

*** › Bizkaia : Uztailak 31 de julio:** Loiolako San Inazio / San Ignacio de Loiola.

*** › Gipuzkoa :**
**Uztailak 31 de julio:** Loiolako San Inazio / San Ignacio de Loiola.

### NAFARROAko JAIEGUNAK / FIESTAS DEL TERRITORIO DE NAVARRA

**13 › Abenduak 3 de diciembre: Nafarroa.** Franzisko Xabier / San Francisco Javier.

### TOKIAN TOKIKO JAIEGUNA / FIESTA LOCAL

**14 ›** Gainera, beste jaiegun bat, **tokian tokikoa**: Además, otro día con carácter de **fiesta local.**

## Tabla de retenciones del IRPF de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa »

**Sobre rendimientos de trabajo y prestaciones por desempleo**

| Importe rendimiento anual | 0 hijos | 1 h. | 2 h. | 3 h. | 4 h. | 5h. | Más |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hasta 11.780 | - | - | - | - | - | - | - |
| Más de 11.780 | 1 | - | - | - | - | - | - |
| Más de 12.250 | 2 | - | - | - | - | - | - |
| Más de 12.760 | 3 | 1 | - | - | - | - | - |
| Más de 13.310 | 4 | 2 | - | - | - | - | - |
| Más de 13.920 | 5 | 3 | - | - | - | - | - |
| Más de 14.580 | 6 | 4 | 2 | - | - | - | - |
| Más de 15.310 | 7 | 5 | 3 | - | - | - | - |
| Más de 16.150 | 8 | 6 | 4 | - | - | - | - |
| Más de 17.370 | 9 | 7 | 5 | 2 | - | - | - |
| Más de 18.790 | 10 | 8 | 7 | 3 | - | - | - |
| Más de 20.130 | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | - | - |
| Más de 21.650 | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | - | - |
| Más de 23.150 | 13 | 12 | 10 | 8 | 4 | 1 | - |
| Más de 24.820 | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 2 | - |
| Más de 26.930 | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | - |
| Más de 29.470 | 16 | 15 | 14 | 12 | 9 | 6 | - |
| Más de 32.530 | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | - |
| Más de 36.680 | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 3 |
| Más de 39.740 | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 5 |
| Más de 42.810 | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |
| Más de 46.200 | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| Más de 49.750 | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| Más de 53.760 | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| Más de 57.180 | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |
| Más de 60.970 | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |
| Más de 65.310 | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |

*** Para trabajadores/as activos discapacitados/as, el porcentaje de retención que resulte de la aplicación de la tabla general se minorará en los puntos que señala la siguiente escala:**

## Trabajadores activos discapacitados »

| Importe rendimiento anual | Minusvalía entre 33% y 64% | -Minusvalía entre 33% y 64% calificada<br>-Minusvalía igual o superior al 65% |
|---|---|---|
| Hasta 22.960 euros | 9 | 12 |
| De 22.960,01 a 29.160 | 7 | 12 |
| De 29.160,01 a 42.310 | 6 | 10 |
| De 42.310,01 a 48.950 | 5 | 10 |
| De 48.950,01 a 69.190 | 4 | 8 |



## Tabla de retenciones del IRPF en Navarra »

**Sobre rendimientos del trabajo y prestación por desempleo**

| Importe rendimiento anual | 0 hijos | 1 h. | 2 h. | 3 h. | 4 h. | 5 h. | 6h. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Más de 11.250 | 4 | 2 | - | - | - | - | - |
| Más de 12.750 | 6 | 4 | 2 | - | - | - | - |
| Más de 14.250 | 8 | 6 | 4 | 2 | - | - | - |
| Más de 16.750 | 10 | 8 | 6 | 4 | 1 | - | - |
| Más de 19.750 | 12 | 11 | 9 | 7 | 6 | 4 | - |
| Más de 23.250 | 13,5 | 12,2 | 11,5 | 8,7 | 7,7 | 5,7 | 3,6 |
| Más de 25.750 | 14,6 | 13,3 | 12,6 | 9,9 | 9,2 | 7,8 | 5,8 |
| Más de 28.250 | 15,8 | 14,5 | 13,7 | 12,4 | 10,7 | 8,9 | 7,9 |
| Más de 32.250 | 17 | 16 | 15 | 13,6 | 12,5 | 10,8 | 10 |
| Más de 35.750 | 18,1 | 17,1 | 16,5 | 14,7 | 14 | 13,3 | 12,2 |
| Más de 41.250 | 20 | 19 | 18,3 | 16,9 | 16,2 | 15,5 | 13,7 |
| Más de 48.000 | 22,1 | 21,5 | 20,9 | 18,9 | 18,3 | 17,7 | 16,6 |
| Más de 55.000 | 24,1 | 23,5 | 23 | 22 | 21,5 | 20,9 | 19,8 |
| Más de 62.000 | 26,1 | 25,5 | 24,5 | 24 | 23,5 | 22,9 | 21,9 |
| Más de 69.250 | 28,3 | 27,7 | 27 | 26,6 | 25,5 | 25 | 24,4 |
| Más de 75.250 | 29,6 | 29,2 | 28,3 | 27,3 | 27,2 | 26,2 | 26,1 |
| Más de 82.250 | 30,8 | 30,5 | 30 | 29,4 | 29 | 28,3 | 27,7 |

* Para trabajadores/as activos discapacitados/as: el porcentaje de retención que resulte de la aplicación de la tabla general se minorará en los puntos que señala la siguiente escala:

### Sobre rendimientos de trabajadores discapacitados »

| Importe rendimiento anual | Minusvalía igual o superior al 33% | Minusvalía igual o superior al 65% |
|---|---|---|
| De 11.250,01 hasta 23.250 euros | 5 | 15 |
| De 23.250,01 hasta 41.250 | 3 | 15 |
| De 41.250,01 hasta 94.750 | 2 | 8 |
| De 94.750,01 en adelante | 2 | 5 |

## Salario mínimo interprofesional 2018 »

| | |
|---|---|
| Salario mínimo día | 24,53 euros |
| Salario mínimo mes | 735,90 euros |
| Salario mínimo año | 10.302,60 euros |

## Pensiones mínimas para el 2018 »

**euros/año**

| Clase de pensión | Con cónyuge a cargo | Sin cónyuge a cargo | Con cónyuge no a cargo |
|---|---|---|---|
| **JUBILACIÓN** | | | |
| *Titular con 65 años | 11.044,60 | 8.950,20 | 8.493,80 |
| *Titular menor de 65 años | 10.353,00 | 8.372,00 | 7.914,20 |
| *Titular con 65 años procedente de gran invalidez | 16.567,60 | 13.426,00 | 12.741,40 |
| **INCAPACIDAD PERMANENTE** | | | |
| *Gran invalidez | 16.567,60 | 13.426,00 | 12.741,40 |
| *Absoluta | 11.044,60 | 8.950,20 | 8.493,80 |
| *Total: titular con 65 años | 11.044,60 | 8.950,20 | 8.493,80 |
| *Total: titular con edad entre 60 y 64 años | 10.353,00 | 8.372,00 | 7.914,20 |
| *Total derivada de enfermedad común menor de 60 años | 5.566,40 | 5.566,40 | (1) |
| *Parcial del régimen de accidente de trabajo: titular con 65 años | 11.044,60 | 8.950,20 | 8.493,80 |
| **VIUDEDAD** | | | |
| *Titular con cargas familiares | | 10.353,00 | |
| *Titular con 65 años, o discapacidad en grado igual o superior al 65% | | 8.950,20 | |
| *Titular con edad entre 60 y 64 años | | 8.372,00 | |
| *Titular con menos de 60 años | | 6.778,80 | |
| **ORFANDAD** | | | |
| *Por beneficiario | | 2.734,20 | |
| *Por beneficiario menor de 18 años con una minusvalía igual o superior al 65% | | 5.381,60 | |
| En la orfandad absoluta, el mínimo se incrementará en 6.742,40 euros/año, distribuidos, en su caso, entre los beneficiarios | | | |
| **EN FAVOR DE FAMILIARES** | | | |
| *Por beneficiario/a | | 2.734,20 | |
| Si no existe viudo/a ni huérfano pensionistas: | | | |
| *Un/una solo/a beneficiario/a, con 65 años | | 6.609,40 | |
| *Un/una solo/a beneficiario/a, menor de 65 años | | 6.228,60 | |
| *Varios/as beneficiarios/as: el mínimo asignado a cada uno/a se incrementará en el importe que resulte de prorratear 3.438,26 euros/año entre el número de beneficiarios/as | | | |
| **SOVI** | | | |
| *Vejez, invalidez y viudedad | 5.728,80 | | |
| -No concurrentes con otras pensiones públicas | 5.560,80 | | |
| -Concurrente con otras pensiones públicas | | | |
| **PENSIONES NO CONTRIBUTIVAS** | | | |
| *Jubilación e invalidez | 5.178,60 | | |

## IPREM (Indicador público de renta de Efectos Múltiples) 2018 »

| | |
|---|---|
| IPREM diario | 17,93 euros |
| IPREM mensual | 537,84euros |
| IPREM anual | 7.519,59 euros |
| | ó 6.454,08 euros (*) |

(*) Según que la respectiva norma se refiriera anteriormente al SMI en cómputo anual, o excluyendo expresamente las pagas extras.



# CALENDARIO PENSIONES MÍNIMAS REVALORIZACIONES COTIZACIONES RETENCIONES SMI IPREM 2018

## Revalorización de pensiones de la Seguridad Social para el 2018 »

### I.- BENEFICIARIOS/AS DE UNA SOLA PENSION

Las pensiones (de incapacidad permanente, jubilación, viudedad, orfandad, y en favor de familiares), en su modalidad contributiva, y causadas con anterioridad a 1 de enero del año 2018, se revalorizarán el 0,25 %, sin que se pueda superar la cantidad de 2.580,13 euros mensuales. Dicho porcentaje se aplica sobre el importe mensual que tuviera la pensión a 31 de diciembre de 2017.

### II.- BENEFICIARIOS/AS DE MÁS DE UNA PENSION

* Las pensiones concurrentes del sistema de la Seguridad Social se revalorizan aplicando a cada una el 0,25 %, sin que la suma, una vez revalorizadas, pueda ser superior a 2.580,13 euros mensuales.

* Si concurren pensiones SOVI con cualquier otra pensión:

- Las pensiones del SOVI no se revalorizan.
- No obstante, si la suma de las pensiones, una vez revalorizadas, no alcanzan en cómputo anual la cuantía fijada para la del SOVI (5.728,80 euros), ésta se revaloriza en un importe igual a la diferencia resultante.
- Caso de concurrencia de pensiones de vejez o invalidez SOVI con la de viudedad, el importe de las pensiones de vejez o invalidez SOVI será de 5.560,80 €, sin que en cualquier caso la suma pueda ser superior al doble del importe de la pensión mínima de viudedad para beneficiarios con 65 ó más años (8.950,20 €).

* La concurrencia de pensiones de la Seguridad Social con pensiones de otros organismos y empresas públicas tiene el tratamiento de las pensiones concurrentes de la Seguridad Social.

No obstante, no se tienen en cuenta a efectos de la revalorización de las pensiones de la Seguridad Social los complementos de pensiones otorgados, en virtud de convenio colectivo o reglamento interior, a trabajadores/as que, como consecuencia de reestructuración de plantilla o causa similar, anticipen la edad de jubilación, obteniendo la pensión con aplicación del coeficiente reductor de aquélla; aunque sí a efectos de aplicar el límite máximo de 2.580,13 euros mensuales.

## Bases de cotización a la S.S. 2018»

| Grupos y categorías profesionales | Bases mínimas Euros/mes | Bases máximas Euros/mes |
|---|---|---|
| **1. Ingenieros/as y licenciados/as** | 1.199,1 | 3.751,20 |
| **2. Ing. Tec. Peritos y Ayu. Tit** | 994,2 | 3.751,20 |
| **3. Jefes/as Adm. y de Taller** | 864,9 | 3.751,20 |
| **4. Ayudantes no titulados/as** | 858,6 | 3.751,20 |
| **5. Oficiales administrativos/as** | 858,6 | 3.751,20 |
| **6. Subalternos/as** | 858,6 | 3.751,20 |
| **7. Auxiliares administrativos/as** | 858,6 | 3.751,20 |
| | **Euros/día** | **Euros/día** |
| **8. Oficiales de 1ª y 2ª** | 28,62 | 125,04 |
| **9. Oficial de 3ª y especialistas** | 28,62 | 125,04 |
| **10. Peones** | 28,62 | 125,04 |
| **11. Trab. menores de 18 años** | 28,62 | 125,04 |

## Bases mínimas por horas (en contratos a tiempo parcial) »

| Grupos y categorías profesionales | Bases mínimas Euros/hora |
|---|---|
| **1. Ingenieros/as y licenciados/as** | 7,22 |
| **2. Ing. Tec. Peritos y Ayu. Tit** | 5,99 |
| **3. Jefes/as Adm. y de Taller** | 5,21 |
| **4. Ayudantes no titulados/as** | 5,17 |
| **5. Oficiales administrativos/as** | 5,17 |
| **6. Subalternos/as** | 5,17 |
| **7. Auxiliares administrativos/as** | 5,17 |
| **8. Oficiales de 1ª y 2ª** | 5,17 |
| **9. Oficial de 3ª y especialistas** | 5,17 |
| **10. Peones** | 5,17 |
| **11. Trab. menores de 18 años** | 5,17 |

**La base mínima mensual de cotización será en estos casos el resultado de multiplicar el número de horas trabajadas por la base horaria indicada.**

## Tipos de cotización a la Seguridad Social »

### (% sobre base de cotización)

| | |
|---|---|
| **Contingencias comunes:** | 4,70 |
| **Desempleo:** | |
| *Contratos indefinidos, contratos temporales formativos en prácticas, de relevo y de interinidad, y contratos con trabajadores discapacitados | 1,55 |
| *Contratos de duración determinada | 1,60 |
| **Formación profesional:** | 0,10 |
| **CONTRATOS PARA LA FORMACION** | |
| **Contingencias comunes:** | 6,94 e/m |
| **Formación Profesional** | 0,17 e/m |

DESDE IPARRALDE
IPARRALDETIK

# Euskoa, gure lurraldeko dirua

## DANTE EDME-SANJURJORI ELKARRIZKETA, EUSKO MONETA ELKARTEKO ORDEZKARIA

› **XABIER HARLUXET**

**Euskoak 5 urte ditu.** Dante Edme-Sanjurjo, Euskal Moneta elkarteko ko-lehendakariak, martxoaren 4an –igandea– ospatuko den 2. Eusko Eguna aurretik, esplikatzen digu Euskoa edo tokiko euskal moneta ekologiko eta solidarioa zertan den.

**-Euskoak zer aldaketa ekarri ditu Ipar Euskal Herrian?**

-Euskoaren arrakastaren ezaugarri handia izan da jendarteko sektore oso ezberdinen artean zubiak sortu dituela, proiektu komun baten inguruan. 3.000 kide partikularrek eta saltegi, enpresa, laborari, elkarte, osagarriaren munduko profesional, etab. arloetako 700 kide baino gehiagok erabiltzen dute eguneroko bizian moneta hori.

Batzuk egiten dute zirkuitu laburren garatzeko, zeren ekologistak dira; beste batzuk tokiko ekonomiaren dinamizatzeko, hots, bertako enpleguen defendatzeko; beste batzuk erabiltzen dute zeren Euskal Herriak bere moneta propioa ukaitea bezalako ideia gustukoa dute; beste batzuk oraino erabiltzen dute saltegi ttipien eta laborantza herrikoiaren defenditzeko, zeren hipermerkatuak eta laborantza industriala ez dira onartuak Euskoaren sarean; beste batzuk erabiltzen dute euskara salbatzeko zeren Euskoak saltzaileei inposatzen die afitxa elebidunaren plantan emaitea bezalako desafio bat. Interesanteena da pertsona horiek guziek, arras diferenteak izanikan ere, komuna den tresna bat erabiltzen dutela eta Euskal Herri euskaldunago, ekologikoago eta solidariago baten eraikitzeko elkarrekin lan egiten dutela. Ene aburuz, Euskoaren aportazio nagusia gaur egun, zirkulu militanteetarik haratago publiko zabal bati geroari itzulia den proiektu horren proposatzea da.

**-Hainbat udalek erabaki dute Euskoaren erabiltzea. Euskal Hirigune Elkargoan ere Euskoa erabiltzeko xedea erakutsi du haren Lehendakari eta Baionako alkate den Jean-René Etchegaray-ek. Zergatik Estatuaren ordezkariak Iparraldean horren kontra agertu dira?**

-Hendaia, Uztaritze, Lekorne, Baiona eta Bastidako udaletxeak Euskoari kidetu dira eta tokiko hainbat zerbitzu publikoetan euskoak kobratzeko moldeak antolatuko dituzte: igerilekuan, mediatekan, eskoletako jantegietan, etab. Frantses Estatuan hori jadanik egiten da tokiko moneta batzurekin. Baina, Jean-René Etchegaray auzapez zentrista buru duen Baionako udaletxeak joan den uztailean aho batez bozkatu du Euskoari kidetzea, aurreikusiz ere, eta hori ez zen beste inon egina izan orain arte, Baionako udaletxeak euskotan ordaintzen ahalko zuela ere. Adibidez hautetsien ordainsarien, elkarteentzat diren diru laguntzen eta merkatu publikoen ordaintzeko. Gaitzeko aitzinatzea litaike.



**Irudian 2017an ospatu zen Eusko Eguna; ziur aurten ere martxoaren 4an besta bikaina izango dela**

Estatua, Prefetaren bidez, horren kontra jarri da, Finantza Ministeritzaren ministerio erabaki tekniko bat aitzinean emanez. Zergatik? Jean-René Etchegaray-en erantzuna argigarria da: "Uste dut badela sumindura jakobino bat, zeren Euskal Herrian tokiko monetan oso ongi dabil", esplikatu du *La Tribune* kazetan. "Eusko-a erreusitze handi bat da. Europa mailan ere kausitzeetarik handienetan da. Eta errealitate horrek trabatu behar du. Uste dut badela zentralizatze nahikeri bat. Gure lurraldeko dirua da zeren Euskal Herriko ekonomia eta energiatik dator. Ez da arrazoin izpirik diru hori gure lurraldean gelditzeko behar neurrien ez hartzeko".

Desmartxa horren sustengatzeko, gaur egun egoeraren ikusmolde hori partekatzen duten guziak –partikularrak, enpresak, udaletxeak...– Euskoa-ri kidetu behar dira, sustengu keinu bat bezala eta Euskoaren garapenaren lastertzeko. Ipar Euskal Herritik kanpoko biztanleentzat posible da internetez kidetzea *www.euskalmoneta.org* webgunean, edo, hobeto, igandean, martxoaren 4an, 2. Eusko Egunerat, hots Euskoaren besta handirat hurbiltzera.

**-Zer izanen dira 2. Eusko Eguna honen ezaugarriak?**

-Familia giroko besta handi bat izanen da, Pirritx eta Porrotxen ikusgarri batekin goizeko 10:00etan, eta ondotik adin guzietakoentzat hainbat animazioekin: laborantza herrikoieko ekoizpenekilako merkatua, ttipientzat zirkoan hasteko ikastaldia, haurrentzat lasaitze gune bat, zintzur bustitze eta kilikatze alaitua, ostatu eta taloak, bazkari herrikoi handi bat, Dantza Piko bat bukatzeko 16:30tan Patxi ta Konpania. Guretzat, Eusko Eguna, bilakatu behar da Herri Urrats bezala, denentzat den egun bat!

**El objetivo del eusko es conseguir una economía más justa, social y ecológica. Para ello impulsa la economía local y un modelo de consumo sostenible**

# Plante de mujeres

ELA SE SUMA A LA INICIATIVA MUNDIAL Y CONVOCA UN PARO DE MUJERES DE CUATRO HORAS EL 8 DE MARZO EN FAVOR DE LA IGUALDAD

› **NAGORE URIARTE**

**¡El nuestro es un grito global, transfronterizo y transcultural!, grita el movimiento feminista mientras llama a la huelga de mujeres del 8 de Marzo,** Día Internacional de las Mujeres. En un mundo cargado de violencia, muros y fronteras, reconforta saber que hay alguien al otro lado. Y resulta que no es solo alguien, resulta que hay todo un NOSOTRAS. ¿Y si nosotras, todas, parásemos? El 8M lo haremos.

**Mas que una fecha, un proceso.** ¡La revolución feminista está en marcha! aclama el movimiento feminista en el mundo mientras organiza una huelga feminista para el 8M; ¡Nosotras paramos! contestan desde Euskal Herria mientras organizan una jornada histórica de paros. Éste podría ser el eco de otro grito que se escuchó previamente, en 2016, cuando el colectivo de mujeres feministas activistas de Argentina tomó las calles llenando el espacio público con sus cuerpos al grito de ¡Vivas nos queremos! No estaban solas. Había alguien al otro lado; escuchando, aprendiendo, compartiendo y colectivizando. Ese mismo año, cuando Polonia reguló la prohibición del aborto, las mujeres se plantaron, reivindicando así el protagonismo sobre su propio cuerpo. Sabían que tampoco estaban solas, porque tenían memoria feminista. En 1975, el 90% de las mujeres de Islandia paró, no solo en el ámbito laboral, también en el reproductivo, el mismo que, a pesar de ser imprescindible para la sostenibilidad de la vida, carece de valor social, político y económico.

**Si paramos todas, todo para.** Así de simple. Así de complejo. Se trata de hacer una huelga a nivel mundial, un parón que desestabilice el sistema, el engranaje que hace posible la vida. Transcender lo laboral, lo productivo. En EH, el movimiento feminista ha convocado paros. La mayoría sindical vasca se adhiere. En ELA, las mujeres también pararemos. ¿Por qué una huelga de mujeres? El movimiento feminista responde:




**“Este modelo económico nos aplasta”.** Más allá de la brecha salarial, el objetivo es resignificar el trabajo, su valor y productividad, cuestionar lo colectivamente llamado empleo. Muchas mujeres son excluidas del mercado laboral regulado, quedando al margen de todo reconocimiento y derechos: empleadas domésticas, agricultoras, trabajadoras sexuales o trabajadoras con diversidad funcional.

**“La violencia machista nos golpea”.** Feminicidios, acoso callejero, agresiones sexuales en las plazas públicas… Una lectura que requiere, además, expandir la mirada más allá de nuestras fronteras: las mujeres migrantes y refugiadas son especialmente maltratadas en las fronteras. No son las únicas: las mujeres migrantes en situación administrativa irregular están especialmente desprotegidas.

**Los cuidados: la lógica perversa.** Una huelga en los cuidados hace patente que el sistema económico colapsaría sin ese trabajo diario, una labor casi siempre realizada gratis, por mujeres, en nombre del amor. El movimiento feminista vasco denuncia la lógica perversa del sistema capitalista, una lógica que afecta, especialmente, a las mujeres migrantes. Hablamos de la red transnacional de cuidados. “Dejamos allí a nuestros hijos e hijas y mayores a cargo de otras mujeres, para cuidar aquí en condiciones precarias”, denuncian.

**#Emakumeok*Planto**
**#NosotrasParamos**

## ¿CÓMO PUEDO SUMARME A LA HUELGA EL 8M?

- **Uniéndote a los paros laborales: de 11.00 a 15.00 y de 18.00 a 22.00.**
- **Participando en los paros y movilizaciones estudiantiles.**
- **Asistiendo a las movilizaciones de pueblos y ciudades. Habrá dos acciones principales: a las 12.00 y a las 20.00.**
- **Colgando delantales (y cualquier otro elemento) de los balcones para visibilizar los trabajos de cuidados.**
- **Poniéndote un brazalete morado allá donde estés. ¡Hazlo tú misma!**
- **Dejando de cuidar este día, sin delegar en otras mujeres*. Hoy pueden hacerlo otros.**
- **Difundiendo la huelga y organizándote. Puedes organizar un bloque de reivindicaciones de tu ámbito en las movilizaciones principales.**
- **Dejando de consumir en el mercado, sobre todo en las grandes empresas que son símbolo de la explotación de trabajadorxs y que nos tratan como objetos.**

# “Emakume guztiok greba orokorra egingo bagenu, sistemak huts egingo luke”

LEIRE TXAKARTEGI ETA JONE BENGOETXEA ELAKO GENERO SAILEKO ARDURADUNEKIN HITZORDUA EGIN DUGU, GREBA DEIALDI HONEK SINDIKATU ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN ARTEKO ALIANTZARI EGIN DION EKARPENAZ HAUSNARTZEKO



› **N. U.**

**Greba joko-zelai ezaguna da sindikatuentzat, ez ordea, lan produktiboaz haragoko jokalarik zelaira ateratzea.** Partida honek, ordea, mugimendu feminista eta sindikalgintzaren elkar ezezagutza eta mesfidantza historikoak jokoan jarri ditu. Leire txakartegi eta Jone Bengoetxea ELAko genero saileko arduradunekin hasi dugu partida.

**-Grebek sistema produktiboa astintzen dute; honek, ordea, sistema produktiboa ere hankaz gora jarri nahi du...**

**-L.T.** Abiapuntua sinplea da: emakume guztiok greba orokorra egingo bagenu, esparru produktibo zein erreproduktiboan, kolapsoa sortuko litzateke; sistema honek huts egingo luke, ez luke funtzionatuko. Auzia ez da lan merkatu arautuan bakarrik planto egitea, lan baldintzen hobekuntza baino gehiago aldarrikatuko da Martxoaren 8ko greban; kapitalismoaren ardatz guztiei planto egitea da asmoa, sistema bera geratzea.

**-J.B.** Emakumeok pribatuan zein publikoan bizi ditugun diskriminazio eta egiturazko ezberdintasun egoera guztiak azaleratu nahi ditugu. Hautsiko da ohiko greba tradizionalaren kontzeptuarekin, bizitzaren kontzeptu produktibistarekin.

**-Baina sindikatuek, tradizioz, lan merkatuko langileak ordezkatu dituzte. Mugimendu feministak, ordea, lanaren kontzeptua astindu du. Zer ekarri dio sindikalgintzari?**

**-J.B.** Sindikatuaren barne berritze prozesuaren baitan pizgarri handia da hau. Azken batean, zalantzan jartzen du sistema produktibista bera, alegia, guk, sindikatuok ordezkatzen dugun subjektua ere kolokan jartzen du; langile klase subjektua zein den eta hortik kanpo nor

## “El 44% de la afiliación de ELA somos mujeres; es imprescindible reconocer que las mujeres empleadas en el mercado laboral son parte del sujeto feminista”

## “Esta huelga nos obliga a mirar mas allá del restrictivo mercado laboral, a replantearnos el empleo como concepto”

uzten dugun galdetzera garamatza ezinbestean. Historikoki sindikatuok lan merkatu arautuan dauden langileak bakarrik ordezkatu ditugu. Lehenengo aldiz, lan erreproduktiboa ere gelditu nahi duen greba batekin egingo dugu bat. Barne kultura osoa astindu digu feminismoak.

**-L.T.** Enpleguaren ardatz murriztatzaile horretatik harago begiratzera behartu gaitu; lana bera kontzeptu bezala birplanteatzera. Mugimendu feministak deitutako lanuzte hauetan sindikatuok orain parte hartzea ez da kasualitate bat, azken urteotan bizi dugun barne prozesuaren ondorio logikoa baizik. Orain dela lau bat urte, halako proposamen bat mahai gainean jarri izan bagenu, erantzuna berehalakoa izango zen: “hori ez da gure esparrua”. Urrats handia da.

**-Bestetik, halako aliantzek behartzen dute sindikatua langile subjektua birplanteatzera, baina baita mugimendu feminista sindikatuek ordezkatzen duten subjektua aitortzera ere?**

**-L.T.** Lan merkatuan prekarietateari aurre egiteko borrokan ari gara etengabe, eta ezin ahaztu genezake prekarietatea batez ere emakumeok pairatzen dugula. Halako gatazkan gainditzeko borrokak gidatzen ari diren emakumeen borrokak, praktikan, borroka feministak dira, Bizkaiko erresidentzietako greban ikusi dugun bezala. Horrek erakusten du badirela subjektu feministaren parte eta elkarren aitortza behar dutela. Egun, ELAn, afiliazioaren %44 emakumeona da, beraz, ezinbestekoa da lan merkatu arautuko emakume langileak ere subjektu feministaren parte direla aitortzea. Sindikatu eta mugimendu feministaren arteko elkar ezezagutza egon da urte askoan; mesfidantza eragin du horrek. Bizkaiko erresidentzietako gatazkak ekarri zuen aldaketa positiboa. Mugimendu feministan errespetu pixka bat irabazi genuela esango nuke.

**-J.B.** Nik sentsazioa daukat mugimendu feministako kide batzuek uste dutela sindikatuan oraindik gizonak nagusi




direla eta erabakitzeko ahalmena eurena dela. Oraindik ere badago irudi zaharkitu bat sindikatuen inguruan. Lan merkatua aldatu da eta berarekin batera sindikatua ere.

**-Zein da sindikalgintzak feminismoari egin diezaiokeen ekarpenik handiena?**

**-J.B.** Antolakuntza. Erresidentzietako gatazka hasi zenean, emakume horiek ez ziren militante feministak, baina euren borrokan zehar identitate hori garatuz joan ziren. Nola? Ba euren behar materialetatik. Askotan zalantza dut ez ote gabiltzan subjektu feminista eraikitzen subjektua bera aintzat hartu gabe.

**-Nola?**

**-J.B.** Kontuan hartu behar da emakume askok euren identitate feminista eraikitzen dutela lan borroka batetik abiatuta, alegia, euren behar materialetatik abiatuta. Euren lan baldintzak hobetzeko hasitako borrokak ematen die emakume izateagatik bizi duten prekarietatearen

## “Si esta huelga sirviese para reflejar que el movimiento feminista y los sindicatos formamos un gran NOSOTRAS, sería un gran paso”

kontzientzia ere; hor batzen dira feminismoa eta sindikalgintza. Azken batean, ezin genezake ahaztu baliabide material eta ekonomikoak ere ezinbestekoak direla bizitzarako, besteak beste, emakumeon autonomia ekonomikorako. Urte askoan sindikalgintzak eta feminismoak ez diogu elkarri nahikoa balio aitortu, baina elkarren beharra daukagu.

**-Zergatik emakumeon greba?**

**-L.T.** Grebaren helburua baldin bada irudikatzea sistema honek ez duela funtzionatzen emakumerik gabe, ezinbestean izan behar da eurei zuzendutako greba. Argi dago, funtsean, gizarte justuago baten alde borrokatzen ari garela, eta hori ez dela bakarrik emakumeon ardura, baina borroka honetan emakumeok izan behar dugu protagonismoa. Gizonak bidelagun behar ditugu, baina ez protagonista.

**-Zer egin beharko lukete gizonek lanuztearen egunean?**

**-L.T.** Aldeko jarrera erakutsi, publikoki babesa eman, enpresatan grebaren aldeko jarrera izan, edota etxeko lanen eta zaintza lanen zama bizkar gainean hartu.

**-J.B.** Batez ere, ez dezatela despolitizatu greba hau, ez gutxietsi. Baztertu behar dute halako gaiak emakumeon gaiak direnaren ideia, denon gaiak eta ardura dira.

**-M8ko lanuzteak biharamuneko zifra eta estatistikez haragoko balio sinbolikoa duela diozue, zergatik?**

**-J.B.** Sindikatuok ez gara deialdi honen protagonistak baina bai bidelagun. Kanpora begira, aliantza honek balioko balu erakusteko ez gaudela, alde batetik sindikatuak, eta bestetik, mugimendu feminista, hori ikaragarria litzateke. Hau da, greba honek balioko balu GU handi bat garela irudikatzeko, urrats handia litzateke. Barrura begira, barne pedagogia egiteko gai bagara, pauso handia izango zen. Denok ikasiko dugu asko elkarrengandik.

**-¿Qué ha supuesto esta alianza para Jone Bengoetxea y Leire Txakartegi a nivel personal?**

**-L.T.** Sin duda, apertura de miras y perspectiva. Me ha aportado la base para darme cuenta del proceso que teníamos que poner en marcha en nuestra propia organización; me ha aportado la fuerza necesaria para ponerlo en marcha y para actuar.

**-J.B.** He aprendido a entender las cosas como evolución, también en las alianzas. El 8M no es una fecha, es todo un proceso. El movimiento feminista lleva toda la vida intentando concienciar a la sociedad: este mundo no funciona sin el trabajo, la vida, y los cuerpos de las mujeres. Ésa es su mayor aportación: mas que el resultado, lo importante es el camino. A nivel personal me ha aportado mucho, también momentos duros. Al final, he interiorizado que nos necesitamos mutuamente, que tenemos mucho que aprender unas de las otras.



**Gehiengo sindikalak Euskal Herriko mugimendu feministak deitu duen greba feminista erregistratu zuen pasa den otsaileko 7an Bilbon**

# “Ahora, a recuperar lo nuestro”

PEIO IGEREGI ADELANTA UNA NEGOCIACIÓN COLECTIVA A LA OFENSIVA “PARA EMPEZAR A RECUPERAR LO QUE HAN HURTADO A LA CLASE TRABAJADORA CON LA COARTADA DE LA CRISIS”



› J.JAIO

**Prekarietateari aurre egiteko proposamen zehatzak aurkeztu behar dugu, lantoki eta sektore bakoitzeko prekarietate mapari erantzungo diotenak**

**Peio Igeregi -responsable de negociación colectiva de ELA desde el último Congreso (junio 2017)- es contundente al afirmar que “es hora de recuperar lo nuestro”.** Coherente con esta idea, adelanta una negociación colectiva a la ofensiva en la que ELA peleará incrementos salariales acordes al crecimiento económico y, cuanto menos, recuperar el poder adquisitivo perdido en los últimos años o establecer una salario mínimo de 1.200 euros, propuestas concretas para luchar contra la precariedad en sectores y empresas, reducciones de jornada y creación de empleo digno. Igeregi adelanta la disposición de ELA a llegar a acuerdos, pero matiza: “acuerdos que supongan un paso adelante en la recuperación de condiciones y derechos laborales. Si no, estamos preparados para la pelea”.

**-Inicio de año y pistoletazo de salida a la negociación de muchos convenios. ¿En qué contexto se presenta la campaña de negociación colectiva 2018?**

-Hay dos planos diametralmente opuestos. Por un lado, la situación de nuestra gente: cada vez más trabajadores y trabajadoras sufren condiciones incompatibles con una vida digna. Por otro, una patronal pública -nuestras administraciones- que niega o impide el derecho a la negociación colectiva y expande la precariedad entre sus trabajadores directos e indirectos; y una patronal privada que quiere seguir engordando sus cuentas de resultados a nuestra costa. Y esos dos planos se encuentran en una coyuntura de recuperación y crecimiento económico indudable. Mientras los primeros siguen afrontando las negociaciones como si aún estuviéramos en crisis, nosotros tenemos claro que es hora de recuperar lo nuestro.

**-“Ahora, a recuperar lo nuestro” es precisamente el eslogan de este año . ¿Qué nos han robado durante los años de la crisis?**

-Es evidente que las patronales han pretendido -y lo han conseguido -salir de la crisis a costa de los derechos y condiciones laborales de las trabajadoras y trabajadores.

Sólo una serie de datos que lo demuestran: entre 2010 y 2015, el peso de las rentas del trabajo respecto al PIB ha bajado 2,5 puntos, en la CAPV, y 3,3, en Navarra, y se han destruido 100.000 empleos. Con el reparto de la riqueza de 2010, los salarios deberían haber recibido 1.582 millones de euros más de lo que lo han hecho. En este mismo periodo, por contra, las empresas han tenido unos incrementos de productividad enormes.

Otro más: la extensión de la precariedad. Ha habido un incremento enorme de los contratos a tiempo parcial (llegan ya al 18,2%), de la temporalidad (supera el 90% en los nuevos contratos y llega al 23,5% del total del mercado laboral), se han extendido las empresas de servicios y la subcontratación, han crecido enormemente las cargas de trabajo...

Por su parte, las Administraciones tampoco están destinando más dinero a los servicios públicos y siguen subcontratando a la baja, con lo que eso supone para esos trabajadores y trabajadoras y para los usuarios y usuarias de los servicios públicos en cuanto a la calidad de los mismos.

Todo lo anterior nos refuerza en la idea de que tenemos que ser exigentes en nuestra reivindicaciones. Tenemos que ser consecuentes con el cambio de escenario y exigir lo que nos corresponde.

**-Así las cosas, ¿cuáles van a ser las reivindicaciones de ELA?**

-Este 2018 nos sitúa ante numerosos retos en la negociación colectiva. Las perspectivas económicas son positivas para 2018 y muchas empresas están ganando muchísimo dinero. Por eso, en cuanto a las subidas salariales se refiere, vamos a trabajar la referencia del crecimiento económico de forma generalizada, sin olvidarnos de una reivindicación como la de lograr un salario mínimo de 1.200 euros en los sectores más precarios o de recuperar el poder adquisitivo perdido durante la crisis.

**-¿Qué significa la referencia del crecimiento económico?**

-El crecimiento económico nominal de 2017 ha superado el 4%. Para que los salarios mantuvieran el peso en el reparto de la riqueza, ésa debe ser nuestra referencia para las subidas salariales o para la generación de empleo. La expulsión de 100.000 personas del mercado laboral y la devaluación salarial han generado esa pérdida de riqueza, y nuestra negociación colectiva va a ir encaminada a recuperar la parte de la riqueza que nos corresponde. Por tanto, mediante empleo y salarios debemos asegurar que en 2018 dejemos de perder peso en el reparto de la riqueza e iniciemos un camino para recuperar lo que nos han venido hurtando.

Evidentemente, esa referencia general habrá que adaptarla a los centros de trabajo y sectores en función de su realidad concreta. Insisto, sin embargo, en que esa adaptación no puede acabar desdibujando esta reivindicación.

El simple acuerdo de la inaplicación de las reformas laborales y de negociación colectiva en la empresa no puede justificar la firma de un convenio. Ya no.

**-La lucha contra la precariedad en sus múltiples formas es otro de los retos que se marca el sindicato.**

-Tenemos que ser capaces de realizar propuestas concretas que respondan de verdad a los mapas de precariedad que nos encontramos en las empresas y sectores: subcontratación, outsourcing, externalización de servicios... Aquí tenemos un reto estratégico: establecer planes de trabajo para dignificar los centros de trabajo, tanto en las empresas principales como en las subcontratas.

**-¿En qué otras materias aspira a incidir ELA?**

-Seguiremos haciendo fuerza para incluir cláusulas contra la inaplicación de los convenios, blindajes, porque los ataques a nuestro ámbito de negociación son continuos por parte de las patronales y los sindicatos estatales, UGT y CCOO. También queremos dar pasos importantes en la reducción de jornada como vía de creación de empleo, la salud laboral y la equidad de género.

**-La desigualdad, la discriminación que sufre la mujer en el mercado laboral es insostenible.**

-No podemos negar que la situación nos interpela muy directamente y, haciendo autocrítica, el sindicato tiene su cuota de responsabilidad. La desigualdad que sufren las mujeres en el mercado laboral es fruto de un sistema que hemos alimentado.

Tenemos por delante el enorme reto de transformar el sindicato; tenemos que revisar el proceso de nuestra negociación colectiva en su conjunto (el modo de recoger las necesidades, la forma de elaborar las plataformas, la forma de elegir los temas estragratégicos, las formas de negociación...).

Es un reto inmenso, que no vamos a alcanzar en un año. Vamos a empezar a




caminar intentando conseguir unos mínimos básicos y haciendo pedagogía con nuestras delegadas y delegados.

En este sentido, creo que el paro convocado el 8 de marzo a nivel mundial, el plante de las mujeres, es una acción que debe marcar un punto de inflexión.

**-Al principio de la entrevista hablabas de dos actores, patronal y trabajado-**

## Langileen kezka errealak ondo jasotzen asmatu behar dugu, hauek baitaitezke gatazkarako palankak

# URTEBETE GEROXEAGO, LANBIDE ARTEKO AKORDIOAREN BALIO JURIDIKOA EZBAIAN UGT eta CCOO-ei ESKER

**-Orain urtebete lanbide arteko akordioa sinatu genuen Confebask-ekin Euskal Autonomi Erkidegoko lan-hitzarmenek Estatuarekiko lehentasuna izan zezaten. Zer berri ekarri du akordio horrek?**

-Urtebete ondoren, orduko egoerara bueltatuko bagina, ELAn argi dugu zer egingo genukeen: berriz ere sinatu. Izan ere, akordio hori sinatu ondoren langileak egoera hobean daude bere lan-baldintzak hobetzeko.

Hori da ELAk edozein akordio sinatzerakoan –ala ez sinatzea erabakitzen duenean– neurtzen duen bakarra, alegia, akordio horrek ordezkatzen ditugun langileentzat benetan hobekuntza suposatuko duen edo ez.

Akordio horri beste dimentsiorik eman nahi izan dionik bada, ordea. Guk argi genuen sinadura horrek ez zuela negoziazio kolektiboan sakoneko aldaketarik ekarriko. Confebaskek akordio hori sinatzeko arrazoi nagusi bat zuen; bere zilegitasuna kolokan jartzen zeuden beste patronal batzuk azaltzen ari ziren eta horrelako akordio batek sindikatuon aldetik zilegitasun hori jasotzea zekarren. Horregatik kendu zuen ordura arte ELAri inposatu nahi zion bake sozialaren klausula.

Edonola, lanbide arteko akordioa sinatu ondoren EAEko langileak egoera hobean daude, Estatutik, CCOO, UGT eta CONFEBASK afiliaturik dagoen CEOEk sinatutako lan-hitzarmen prekarioetatik askatzeko.




**res/as, con intereses contrapuestos. ¿Podemos augurar un 2018 caliente?**

-Depende de la otra parte en la mesa negociadora... ELA está en todos los ámbitos de negociación colectiva en los que le corresponde estar, y tenemos una posición activa y favorable a buscar acuerdos.

Dicho esto, no podemos obviar que la administración pública y los partidos que la gobiernan han decidido que en lo relativo a la subcontratación y a las condiciones de trabajo de la gente subcontratada no van a dar ningún paso ni garantía adicional a la que el convenio sectorial de turno o la ley les conceda. Han decidido que quien quiera pelear por sus condiciones de trabajo va a tener que hacer peleas largas, duras y difíciles. Tampoco respeta el derecho a la negociación colectiva de sus propios trabajadores y trabajadoras.

En cuanto a la patronal privada, ha optado por el bloqueo de la negociación colectiva. Se niega o intenta negarse hasta el final a incorporar cláusulas que limiten el alcance de la reforma laboral, y no está dispuesta a mejorar los convenios en negociación.

Por tanto, es muy previsible que para llegar a esos acuerdos que buscamos tengamos que ir al conflicto, a la huelga. No es un escenario nuevo. Los buenos acuerdos en empresas y sectores logrados en los últimos años han llegado tras largas peleas.

**-Sin duda, la negociación colectiva se afronta de otra manera cuando se dispone de un fondo de solidaridad como la Caja de Resistencia.**

-Lo que condiciona la negociación colectiva es la capacidad que tengamos de organizarnos en cada sitio. No importan el tamaño de la empresa o el sector, ni la patronal ante la que estés. Lo que importa es que tengamos los objetivos claros, que nos organicemos y que tengamos capacidad de confrontar.

Y cuando llega la hora de la confrontación no es lo mismo contar con Caja de Resistencia que no. Ser de verdad un sindicato reivindicativo es poner a disposición de los trabajadores/as instrumentos que les permitan llevar su reivindicación hasta las últimas consecuencias, para mantener la huelga y ganarla.

**-¿Estaremos solos defendiendo nuestras reivindicaciones?**

-Allá donde podamos intentaremos sumar con otras organizaciones que persigan los mismos objetivos y que estén dispuestos a respetar las mayorías en cada ámbito. Sin embargo, hemos demostrado que también podemos lograr grandes convenios solos. Y seguiremos haciéndolo.

**Genero gaiari benetazko erantzuna emateko sindikatuen transformazioa egin behar dugu eta negoziaketa kolektiboaren prozesua osorik berrikusi**

## ALGO TAN BÁSICO COMO NEGOCIAR LOS CONVENIOS EN NAVARRA

**En Navarra, las reivindicaciones que defenderá ELA en las mesas de negociación serán las mismas que en la CAPV**, aunque se parte de una correlación de fuerzas distintas. "En este territorio, UGT y CCOO son mayoría sindical en muchos sectores, lo que nos empuja a centrar nuestros esfuerzos en las empresas, donde ELA está logrando buenos convenios allá donde somos mayoría".

Así las cosas, una de las líneas de trabajo para 2018, tal como explica Mitxel Lakuntza, coordinador de Navarra, "va a ser algo tan básico como que podamos negociar nuestras convenios en Navarra. La creciente estatalización de la negociación colectiva -que se impongan por parte de la patronal, UGT y CCOO los convenios sectoriales firmados en Madrid- solo trae precariedad y miseria laboral".

Lakuntza insiste en las enormes diferencias entre los modelos sindicales de estos sindicatos y el de ELA, que dificulta cualquier tipo de colaboración sindical. "Básicamente tenemos tres problemas: en primer lugar, quieren impedir que la clase trabajadora navarra pueda negociar aquí. En segundo, creen que el sitio de un sindicato está en las mesas del mal llamado diálogo social. Por último, en muchas empresas siguen siendo más que un sindicato una agencia de colocación. Lo que se conoce como sindicalismo de enchufe, práctica que conlleva que la posición reivindicativa de estos sindicatos desaparezca de muchas empresas".

Finalmente, el coordinador de Navarra anima a la lucha colectiva también en este 2018. " Es tiempo de disputar lo que nos quitaron o lo que nunca tuvimos, teniendo muy presente que sindicato existe para vencer la "condena" a la precariedad, la desigualdad y la injusticia.

**-Lanbide arteko akordioaren balio juridikoa ere ezbaian dago.**

-Zentzu horretan, ez da harritzekoa CCOO eta UGT sindikatuen jarrera: lanbide arteko akordioaren balioa zalantzan jarri dute. Lanbide arteko akordioa sinatu baino egun gutxi batzuk lehenago, eduki eta zentzu berarekin ELA eta LABek beste akordio bat sinatu genuen Ostalaritzan, eta CCOO eta UGTk inpugnatu egin dute, horrek Kolektibitate alorrean langile berrientzat soldata erdia jasotzea suposa dezakeen arren.

Horrek zuzenean erasotzen du lanbide arteko akordioaren muina, alegia, bertoko akordioek lehentasuna izatea, hain zuen.

Lanbide arteko akordioaren balio juridikoa ere ezbaian dago. Auzitegi Gorenean jasoko dugu erantzuna.

**-Urtebete ondoren negoziazio kolektiboaren egoera , zertan aldatu al da?**

-Confebaskek lanbide arteko akordioa sinatu zuen, bai, baina ez zion uko egin nahi izan lan erreformek langileen lan-baldintzak okertzeko emandako botereari; lehiakortasuna zein dirua irabazteko lan-baldintzen debaluazioak jarraitzen du bere apustu estrategikoa izaten.

**-Negoziazio kolektiboa desblokeatzeko, zein da bidea?**

-Negoziazio kolektiboaren desblokeorako momentu honetan guk ez dugu patronalarengan inongo federik, gure fede guztia langileen antolakuntzan sindikatuok eman ditzakegun urratsetan dago. Sindikatuok prest egon behar dugu sektore zein enpresetan langileak antolatu eta grebak martxan jartzeko.

Krisiaren eragin eta aitzakiaz sortutako lan-prekarioa jasaten duten langile askoren pazientzia agortzen ari dela ikusten ari gara. Borrokan baino ez da aldatuko benetako negoziazio kolektiboaren egoera, beste inongo mahaitan ez da ezer aldatuko.

# “Ez gara amarruetan jausiko”

MIREN ZUBIZARRETA, ELAK IRAKASKUNTZAN DUEN ARDURADUNA



› GORKA QUEVEDO

**Urtarrilean eta otsailean negoziazio mahaiak eta mobilizazio ezberdinak** (batzarrak, elkarretaratzeak, sozializazio eta salaketa ekimenak…); martxoaren 14an eta 15ean greba egunak; apirilaren 23tik 27ra irakasleen greba; maiatzaren 7tik 11ra greba heziketa berezian eta 21etik 25era sukalde eta garbiketan; ekainaren 4tik 8ra greba haurreskoletan eta 12an greba hezkuntza publikoan; ostiralero elkarretaratzeak ikastetxeen aurrean… Hori da, laburbilduz, 2018. urteari begira ELAk, Steilas eta LABekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan iragarri duten mobilizazio egutegia. ELAk irakaskuntzan duen arduradun Miren Zubizarretak argi dauka mobilizatzea inoiz baina garrantzitsuagoa dela.

**-Aurreko ikasturtean hamaika mobilizazio egin ziren. Honetan ere makina bat egin dira, hainbat greba egun tarteko. Eta, berriki, mobilizazio egutegi zabala aurkeztu dugu ikasturtea amaitu arte. Zein da egoera?**

-Gure aldarrikapenak lehen mailan jartzea lortu dugu, Eusko Jaurlaritza ere mugi arazi dugu, baina momentuz soilik gure aldarrikapen gutxi batzuk eta oso modu partzialean besterik ez ditu negoziatu nahi. Oraindik oso urrun gaude hezkuntza publikoak bizi duen egoera larria iraultzeko beharrezkoak diren neurriak adostetik. Eusko Jaurlaritzak sektoreak dituen premiei erantzuteko beharrezkoak diren neurriak hartzea nahi badugu mobilizatzen jarraitu beharra dago.

**-Eusko Jaurlaritzarekin urtarrila amaiera eta otsaila hasieran hainbat bilera sektorial egin dira. Nola joan zen?**

-Gaizki, oso desilusionatuta atera gara hitzordu guztietatik. Errespetu falta itzela izan dira. Baina ez bakarrik guri; hezkuntza komunitate osoari ere bai: langileei, ikasleei eta familiei. Gure aldarrikapenak zein diren argi zeuden, eta Jaurlaritzak ez du ezer berririk esan. Joan ez bagina ere, ez zen ezer gertatuko. Horregatik, bileren ostean argi utzi dugun lehenengo gauza izan da mobilizatzen jarraitu beharko dugula. Urtarrilaren 26koa irakasleen bilera izan zen, urtarrilaren 31n sukalde eta garbiketako langileena, otsailaren 2an Haurreskoletakoa eta otsailaren 7an heziketa berezikoa. Bilera hauetan jarrera berbera izan du Jaurlaritzak: inolako eduki berririk gabe etortzea alegia.

**-Beraz, ez duzu Eusko Jaurlaritzan akordiorako borondate askorik ikusten…**

-Gaur gaurkoz, ez. Sailburuordeak esan zuen prest zegoela abenduan egindako proposamenetan sakontzeko, baina ez dakigu zer esan nahi zuen horrekin. Azken bilera hauetan, gutxienez, ez zen inolako ‘sakontasunik’ ikusi, ez zuen inolako neurri eraginkorrik eraman.

Ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren diskurtsoa desmontatzea. Nekatuta gaude Cristina Uriarte sailburuaren jarreraz. ELA beti egon da negoziatzeko prest, eta etorkizunean hala egongo da. Baina ez gaude prest gure aldarrikapenak alde batera uzteko edo eduki nahikorik gabeko negoziazio hutsaletan sartzeko.

## “La irresponsabilidad del Departamento de Educación no nos deja más remedio que seguir adelante con el calendario de 8 días de huelga”

## “La actitud de Educación delata que no tienen una verdadera intención de solucionar los graves problemas que tiene la enseñanza pública”

Jaurlaritzaren asmoa aldarrikapen nagusienei erantzun gabe edo oso modu eskasean erantzunda greba eta mobilizazioak alde batera uztea da, ondoren eduki nahikorik gabeko negoziazio hutsaletan sartu eta trabatzeko. Ez gara amarru horretan jausiko.

**-Otsailaren 14an bilera sektorial berria dago Hezkuntza Sailarekin; kasu honetan irakasleena. Zer espero liteke?**

-Ez dakigu zer gertatuko den, egin beharreko balorazioa orduan egingo dugu. Baina susmoa dugu orduan ere ez dituela jarriko egoera iraultzeko balioko duten proposamenik. Funtsezko edukietan –hezkuntzan inbertsio handiagoa, ordezkapenak, ratioak, plantila gehikuntza eta behin behin-behinekotasuna jaistea kontsolidazio prozesuen bidez, lan kargak, eros-ahalmenaren berreskurapena, haurreskolen doakotasuna, sukalde eta jangelak edo garbiketa zerbitzuen pribatizazio arriskua ekiditea… publikotasuna…– ez dugu aldaketa askorik espero. Ikusiko dugu.

Argi dagoena zera da: azken urte eta hilabeteetako esperientziak argi uzten digu greba eta mobilizaziorik gabe ez dagoela egungo egoerari buelta ematerik. Eusko Jaurlaritza soilik mugitu da bere burua behartuta ikusi duenean. Gure aldarrikapenak lortzeko eta negoziazio erreal batean sartzeko dugun aukera bakarra mobilizatzea da. Horregatik, ez dugu onartuko inork mobilizazioa kriminalizatzen saiatzea.

**-Zergatik diozu hori?**

-Cristina Uriarteri entzunda badirudi hezkuntza publikoaren egoera zoragarria dela, ez dagoela arazorik eta sindikatuon ardura dela akordiorik ez lortzea, bereziki ELArena. Ez. Ez da ELAren errua azken hamar urteetan hezkuntzan



egindako inbertsioa Barne Produktu Gordinaren %4,3tik %3,5era jaitsi izana. Ez da gure ardura hezkuntzan ehunka milioi euro gutxiago inbertitzea denbora honetan 30.000 ikasle gehiago matrikulatu direnean.

Akordiorik ez dago mahai gainean ez dagoelako hezkuntza publikoaren egoerari erantzuteko inolako proposamenik. Ez dugu onartzen Hezkuntza Sailak guri leporatzea hezkuntza publikoa kaltetzen ari garela. Hezkuntza publikoa kaltetzen duena sektore honetan behar adina ez inbertitzea da. Langileak euren lan-baldintzen alde mobilizatzen ari dira, hezkuntza publikorako inbertsio, plantila eta baliabide gehiago aldarrikatzen dituzte. Uriarte sailburuak ez dio benetako eztabaidari heldu nahi, horregatik arreta beste nonbait jartzen saiatzen ari da.

**-Nafarroan ere urtarrilaren 26an izan zen hezkuntza publikoaren mahai sektorialaren bilera. Nola joan zen?**

-Lan itunean nabarmentzeko puntu positiboak ikusi arren, neurri gehienetan zehaztasuna, egutegi zehatza eta diru partidak falta izan ziren. Asmo onak konpromiso serio eta baliabide hornitze egoki bati lotu behar dira, eta hori ez genuen ikusi azken proposamenean. Hamar hilabete pasa dira lan itunaren inguruko lanketa hasi genuenetik, eta zortzi hilabete Hezkuntzaren proposamen zehatza espero genuenetik. Hezkuntza sistema publikoren kalitatea hobetzeko ezinbestekoa da neurri hauek arduraz eta konpromiso sendoz aurrera eramatea, murrizketa basatiak leheneratuko dituen egutegi zehatzarekin eta egungo errealitateari erantzuna emango dion planteamendu zehatz batekin. Horretarako ezinbestekoa dugu hezkuntzan inbertsioa handitzea.

Irakastorduak, ratioak, ordezkapenak eta lanpostuen egonkortzeari buruzko benetako negoziazioa hasteko zehaztasun gehiago behar dira. Hori da ELA sindikatuak negoziazio mahai sektorialetan tinko eskatu duena eta eskatzen jarraituko duena.

## MOBILIZAZIOEN EGUTEGIA



## “PATRONALEK EZ DUTE AKORDIORIK NAHI ITUNPEKO IRAKASKUNTZAKO GIZARTE EKIMENEKO IKASTETXETAN”

Gizarte ekimenean zein Ikastoletan langileek badituzte kexatzeko hamaika motibo. 2009. urtetik daramate hitzarmena berritu gabe, horrek lan baldintzetan galera nabarmena eragin duelarik.

**-Itunpeko irakaskuntzan ere mobilizazioak iragarri dira. Zein da bertan egoera?**

-Gizarte Ekimeneko itunpeko irakaskuntzako ikastetxeetan ere mobilizazio egutegi bat garatu dugu. Otsailaren 22an manifestazio bat egingo da Bilbon, eta elkarretaratzeak ikastetxeetan, auzuneetan... Aste Santuak baino lehen –martxoak 20– greba-egun bat ere aurreikusten dugu. Hitzarmen berriaren negoziaketa prozesua 2010eko maiatzean hasi zen; mahaiko bilerak 35etik gora izan dira eta sindikatu guztiok plataforma bateratua sortzeko prest agertu ginen akordioa bermatze aldera. Ahalegina handia izan bada ere, ez dugu erantzunik jaso.

Hau guztia ikusi ondoren, zaila da sinestea Kristau Eskolak eta gainerako patronalek inoiz izan dutenik benetako negoziazio bat egiteko asmorik, edo hitzarmen berri bat sinatzeko intentziorik ere Gizarte Ekimeneko itunpeko irakaskuntzako ikastetxeetan. Hori dela eta, negoziazio mahaitik altxatzea beste aukerarik ez digute utzi. Argi dago ez dutela akordiorako borondate askorik.

**-Eta, Ikastoletan?**

-Egoera bertan ez da hobea. Ezin dugu ahaztu hemen ere langileek ia hamar urte daramatela hitzarmena berritu gabe –2009tik–, eta eurek ere murrizketa gogorrak bizi izan dituztela. Horregatik ELAn argi daukagu bertan ere greba eta mobilizazio dinamika bat ireki beharra dagoela. Zoritxarrez, LAB ez dugu prest ikusten horretarako.

LA PLATAFORMA 'SANFERMINES 78 GOGOAN' PRETENDE RECAUDAR 25.000 EUROS PARA CONSTRUIR UNA ESCULTURA EN RECUERDO A LAS VÍCTIMAS DE LA BRUTALIDAD POLICIAL EL 8 DE JULIO DE AQUEL AÑO

# 40 años sin verdad ni justicia



› GORKA QUEVEDO

**Iruñea, 8 de julio de 1978. Fiestas de San Fermín.** Al finalizar la corrida de toros varios jóvenes saltan a la plaza con un pancarta en la que se reclama la libertad para las y los presos políticos. La policía nacional española entra en acción: 40 miembros de la policía armada, con el comisario jefe al frente, empiezan a cargar y disparar pelotas de goma y botes de humo. El balance: decenas de heridos, siete de ellos por bala.

Pese a la brutalidad policial mostrada en la plaza, los mandos deciden que no ha sido suficiente y comienzan a llegar refuerzos. La orden es clara: despejen la ciudad disparando sin que "os importe matar", según consta en la cintas grabadas de la frecuencia de la policía. Se llegaron a contabilizar más de 5.000 pelotas de goma, más de 1.000 botes de humo, más de 1.000 botes lacrimógenos, más de 100 proyectiles de 9 milímetros parabellum y más de 50 proyectiles de 9 milímetros corto. Uno de esos tiros alcanzó a las 22:20 al joven Germán Rodríguez a pocos metros de la plaza de toros, causándole la muerte.

**Han pasado 40 años de aquellos trágicos sucesos.** Sin embargo, esos Sanfermines continúan en el imaginario colectivo de miles de iruindarras; 'Sanfermines 78 gogoan!' es una muestra de ello. Amaia Kowasch, Elena Bengoetxea y Sabino Cuadra son tres de las personas que forman parte de esta iniciativa. "Nuestro objetivo es recuperar la memoria histórica referida a la brutal agresión policial sufrida por el pueblo de Iruñea y Navarra en los Sanfermines de 1978. La impunidad por aquellos hechos sigue vigente, es un caso no cerrado. Queremos aportar nuestro granito de arena en un movimiento más amplio por materializar los derechos democráticos a la verdad, la justicia y la reparación a los que tienen acceso las víctimas de la violencia del Estado".

Para ello, han programado un amplio programa de actividades que tendrá uno de sus puntos fuertes en junio, cuando se colocará un monumento en recuerdo de los sucesos de hace 40 años. "Es una escultura que hará Dora Salazar y que pretende recordar aquellos hechos. Aquel triste día murió Germán, pero pudo morir cualquiera. Por eso, el monumento pretende recordar a todas las personas que fueron víctimas de aquella agresión policial".

Tanto la escultura como las diferentes iniciativas programadas tienen un coste económico. Para poder hacer frente a estos gastos el 12 de febrero se puso en marcha una campaña de crowdfunding. "Desde el primer momento hemos tenido claro que ésta era una iniciativa ciudadana de carácter popular, por eso hemos abierto una campaña de cuestación popular".

**Recuperar la memoria.** "Verdad, justicia, reparación". Esos son los tres ejes con los que trabaja 'Sanfermines 78: Gogoan!'. "Han pasado casi 40 años sin que se haya exigido ninguna responsabilidad penal, política o civil. Sin embargo, pese al silencio de las instituciones durante estos años o la falta de acción por parte de los tribunales que se negaron a juzgar a nadie, el recuerdo continúa vivo. Estos próximos meses vamos a presentar distintas iniciativas, desde el ámbito local y foral al Europeo, para que se sepa de una vez por todas lo sucedido. Queremos que se sepa la verdad –ni siquiera se han desclasificado los documentos oficiales–, que se haga justicia y que se reparen las consecuencias".

## "UNO DE ENERO, DOS DE FEBRERO, TRES DE MARZO, CUATRO DE ABRIL..."

**Así comienza la famosa canción de las principales fiestas de Iruñea.** Una escalera que nos lleva hasta el 7 de julio. La iniciativa 'Sanfermines 78: Gogoan!' también tiene este 2018 su particular escalera. "Cada mes haremos una serie de actos temáticos. En enero, presentamos la escultura; en febrero, habrá un ciclo de charlas y mesas redondas sobre memoria histórica, transición política y la situación política de Navarra en 1978; en marzo, habrá un ciclo de cine y documentales; en abril, se estrenará una obra de teatro sobre memoria histórica y los Sanfermines de 1978 y debatiremos sobre memoria histórica y teatro; en mayo, se inaugurará una exposición fotográfica y audiovisual inédita sobre aquellos Sanfermines; en junio, además de la inauguración del monumento, habrá jornadas y sesiones de hip-hop, rap o bertsolaris; en julio, haremos un homenaje especial con motivo del 40 aniversario...".

Una serie de actividades a las que Amaia Kowasch, Elena Bengoetxea y Sabino Cuadra animan a participar a toda la ciudadanía.

# “Queremos aplicar en Georgia muchas cosas de ELA”

DEL 7 AL 12 DE ENERO, UNA DELEGACIÓN DE LA CONFEDERACIÓN SINDICAL DE GEORGIA -GTUC- VISITÓ NUESTRO SINDICATO



› J.JAIO

**Sin apenas derechos laborales, el 60% de la clase trabajadora de Georgia subsiste en la economía informal** y bordea el umbral de la pobreza. Es en este difícil contexto en el que la Confederación Sindical de Georgia realiza sindicalismo. Una delegación de este sindicato visitó ELA y nos acercó a la cruda realidad de su país.

**-¿Por qué esta visita a Euskal Herria?**

-El objetivo de la visita, eminentemente de trabajo, ha sido conocer de primera mano el funcionamiento de la Caja de Resistencia de ELA. En nuestro último Congreso aprobamos la creación de un fondo de solidaridad y, por similitudes, nos pareció que la experiencia de ELA nos podría ser muy útil.

También nos gustaría aplicar en nuestro país aspectos organizativos de ELA como la doble estructura de comarcas y federaciones. Para ser más fuertes, debemos mejorar en organización. Queremos ir adaptando a nuestra realidad conocimientos adquiridos por ELA a lo largo de sus años de existencia; ganar en eficacia para poder ayudar más y mejor a la clase trabajadora.

**-A grandes rasgos, ¿cuál es la situación social, laboral y sindical en Georgia?**

-Muy dura. En el año 2006 llegó al poder un gobierno muy neoliberal que liquidó el derecho y las instituciones laborales existentes hasta ese momento. En la actualidad solo contamos con un código laboral de 56 artículos.

En 2013, gracias a unos cambios legislativos -provocados, en gran parte, por nuestra presión- conseguimos mejorar parcialmente la legislación. Por ejemplo, se instauró el preaviso obligatorio antes del despido, así como la justificación del mismo. Aumentó también la duración mínima de los contratos a un año. Y se ha creado una comisión de negociación tripartita: gobierno, empleadores, sindicatos, que no tiene la importancia que nos gustaría, pero algo es.

Ahora, por ejemplo, cuando judicializamos algún asunto podemos llegar a tener éxito, cosa que antes no ocurría. Nuestro más importante servicio es que ofrecemos servicios jurídicos gratuitos a nuestra afiliación.

A pesar de estas pequeñas mejoras, la realidad es que el despido es libre, sin finiquito y que no existen prestaciones por desempleo. Asimismo, hay mucho contrato verbal, que es muy problemático por la dificultad de demostrar la vinculación laboral, y la temporalidad es enorme.

**-¿Qué margen de actuación tiene el sindicalismo en este contexto?**

-Nuestro trabajo es doble. Por un lado, hacemos un trabajo de despacho, funcionamos como un lobby: vamos al Parlamento, nos reuniones con los grupos parlamentarios y les demandamos legislación laboral.

También son muy útiles los mecanismos internacionales. Mandamos nuestros informes y denuncias de que no se garantizan derechos laborales, sindicales y de negociación colectiva y la OIT emite recomendaciones para el estado de Georgia de obligado cumplimiento ya que ha firmado esos convenios internacionales. También está la influencia de la UE. Hace tres años, Georgia firmó un convenio de asociación con la Unión Europea y este documento incluye 40 directivas laborales que Georgia debe cumplir.

Son medidas trascendentales para nosotros y un mecanismo para tener una cierta influencia en los sucesivos gobiernos.

Y, por otro, a pesar de las dificultades, organizamos numerosas movilizaciones, manifestaciones y huelgas. Y eso que el derecho de huelga también está muy limitado: por un lado, muchos trabajadores de sectores denominados esenciales no pueden ir a la huelga y, por otro, hay que realizar un sinfín de trámites para que sea legal.

**-¿Cuáles son, en estos momentos vuestras prioridades como sindicato?**

-Estamos realizando esfuerzos enormes para conseguir crear una Inspección de Trabajo en nuestro país. De hecho, hemos conseguido que se ponga en marcha un proyecto legislativo, pero lo que conocemos hasta ahora es muy decepcionante. Otro problema gravísimo al que nos enfrentamos es el altísimo índice de siniestralidad laboral, fruto de la absoluta precariedad laboral que sufrimos. También estamos intentando que se reconozca un salario mínimo digno garantizado por ley. El gobierno dice que es de 250 euros, pero no es real porque esta media incluye los sueldos de los directivos.

Otro reto que nos marcamos es conseguir al menos seis meses de prestación por desempleo, algo que no está en la agenda gubernamental. Asimismo, la vivienda es un problema enorme: queremos dar apoyo a las numerosas personas que están siendo desahuciadas por los bancos.

## ELAk GTUC konfederazio georgiarraren delegazio baten bisita jaso du

ELAk urtarrilaren 8tik 10era GTUC (Georgian Trade Unions Confederation) konfederazio georgiarraren delegazio baten bisita jaso zuen. Bisita honi esker, gure testuinguruan ditugun esperientzien eta erronkak trukatu ahal izan genituen, bi sindikatuen artean dugun aldebiko lankidetza indartuz.

Bost kidek osatutako delegazioaren buru: GTUCaren presidentea, Irakli Petriashvili; Raisa Liparteliani, presidenteordea eta zerbitzu juridikoen arduraduna; Tamaz Dolaberidze, presidenteordea eta meatzaritza eta sektore industrialeko sindikatuen buru; Ilia Verdzadze, presidenteordea eta Adjara Errepublika Autonomoko sindikatuen buru; eta Shalva Lazariashvili, nazioarteko idazkaria eta pertsonalaren arduraduna.

# EUSKALDUNATIK EUSKALDUNARA

› GORKA QUEVEDO

Iragan mendeko 80. hamarkadan Bilboko Euskalduna ontziolako langileek egindako borroka euskal langile klasearen memorian ondo txertatuta dago. Espainiar Estatua Europar Batasuneko kide izateko prozesua martxan zen, eta horretarako hainbat konpromiso bete behar zituen; horien artean ontziolen sektorearen birmoldaketa sakona. Erabaki horrek, besteak beste, Euskaldunaren itxiera suposatzen zuen. Bertako langileek euren lanpostuen eta industria proiektu bideragarri baten aldeko borroka gogoangarria gauzatu zuten. Berriki beste borroka gogoangarri bat bizi izan dugu Euskaldunan.

Baina, kasu honetan, protagonistak ez dira inolako ontziolako langileak izan, Euleneko langileak baizik, Bilboko Euskalduna Jauregiko zerbitzu ezberdinen adjudikazioduna. Zuzenean kontratatutako langileen lan bera egin arren –aretoen muntaia eta desmuntaia; laguntza teknikoa; arropazaindegiaz arduratu; ekitaldiak koordinatu; leihatilan egon...–, 45 lagun hauen lan-baldintzak askoz ere kaxkarragoak ziren.

**Urte luzez zeramaten egoera bidegabea sufritzen.** Azkenean, hilabete luzetako antolakuntza eta prestaketen ostean, 2017ko abenduaren 28an greba mugagabea hasi zuten. Ez da prozesu erraza izan: enpresaren zuzendaritzak hamaika traba jarri zituen hasieratik. ELAk hainbat salaketa jarri behar izan zituen Lan Ikuskaritzan, greban zeuden langileak legez kanpo ordezkatzeagatik.

**Azkenean, urtarrilaren 10ean, 14 egunetako grebaren ostean, akordio bikaina lortu zen.** Hitzarmen berriak nabarmen hobetuko du langileen egoera. Soldata igoerak oso nabarmenak izango dira, %20tik gorakoak –zenbait kategoriatan %45era ere helduko dira–; lanaldia nabarmen murriztuko da –urtean 80 ordu–; bost asteburutik bi libratu ahal izango dute –lehen ez zuten bakar bat ere libratzen–; antzinatasuna onartu da eta hirurteko bakoitza %0,50 ordainduko da –langile askok 15 urte zeramaten bertan lanean–; behin-behineko langileak aldizkako langile finko bihurtuko dira; hobekuntza nabarmenak egongo dira baimen eta plusetan; subrogazio eskubidea izango dute; lan erreformatik babesteko klausulak adostu dira...




Aurreko paragrafoa irakurrita begibistakoa da akordio bikain baten aurrean gaudela, 45 langile hauek erakutsitako antolatzeko eta borroka-tzeko gaitasunari esker lortua. Urte asko igaro dira Euskaldunako bi langatazka hauen artean, baina bada gauza bat denbora honetan aldatu ez dena: langile-klaseak bere lan eta bizi baldintzak hobetu nahi baditu ez du antolatu eta borrokatu beste irtenbiderik.

**FRANQUEO CONCERTADO** / FRANKEO ITUNDUA
**NO 08/129** ZKIA

**Causa devolución** Itzultzearen arrazoia

- ☐ **Desconocido. Empresa** Ezezaguna. Enpresa
- ☐ **Desconocido** Ezezaguna
- ☐ **Rehusado** Uko egin zaio
- ☐ **No retirado** Baztertuta

**DISTRITO** BARRUTIA:
**SECCIÓN** ATALA:
**FECHA** DATA: